

Europa, Barandiaran eta baloreak

Jose Miguel Barandiaranen
heriotzaren 25. urteurrena



Europa, Barandiaran eta baloreak

Jose Miguel Barandiaranen
heriotzaren 25. urteurrena



EDITOREA

Arabako Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila

EDIZIOAREN KOORDINATZAILEA

Zuriñe Velez de Mendizabal Etxabe

©Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa

ARGAZKIAK

Zuriñe Velez de Mendizabal Etxabe

Irekia

Garazi Etxeberria Barandiaran

ITZULPENAK

Zuriñe Velez de Mendizabal Etxabe (gaztelaniara)

Argitxu Camus Etxecopar (frantsesera)

Eduarne Arostegi (ingelesera)

INPRIMATZAILEA

Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia

Lege Gordailua • Depósito Legal: VI 115-2017

ISBN: 978-84-7821-884-4

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Ataun. Erakunde ekintza (2016.12.21)	9
Josemari Velez de Mendizabal.....	11
Asier Rodriguez.....	13
Argitxu Camus.....	15
Uxue Barkos	17
Iñigo Urkullu.....	20
Europa, Barandiaran eta baloreak. Hitzaldiak	25
Asier Barandiaran	29
Ixone Fernandez de Labastida.....	43
Argitxu Camus.....	55
Xabier Irujo.....	63
Gaspar Martínez	71

Aurkezpena

2016ko abenduaren 21ean On Jose Miguel Barandiaranen heriotzaren 25. urteurrena bete zen. Bere izena daraman Fundazioak hainbat ekitaldi antolatu zituen urriaren 20an hasi eta abenduaren 21era bitartean. Liburuxka honen bidez efemerideak emandakoa jasotzea da asmoa.

Atal ezberdinak dituen liburua da. Hasteko, abenduaren 21ean Ataungo Sara Etxean ekitaldi bat egin zen eta bertan parte hatu zuten hizlarien testuak jasotzen dira aurreneko atalean: Josemari Velez de Mendizabal (Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko presidentea), Asier Rodriguez (Ataungo alkatea), Argitxu Camus (mahai-inguruetako hizlarietako bat), Uxue Barkos (Nafarroako lehendakaria) eta Iñigo Urkullu (EAEko lehendakaria).

Bigarren atalean berriz, urria ezkerro eginiko “Europa, Barandiaran eta baloreak” izeneko mahai-inguru zikloko ekarpenak aurki daitezke. Euskal Herriko bost hiriburutan burutu ziren Barandiaran prisma ezberdin batetik begiratzeko helburua zuten mahai-inguruak: Gasteiz (urriak 20), Bilbo (azaroak 3), Donostia (azaroak 17), Iruñea (abenduak 1) eta Baiona (abenduak 15).

Denetan hizlari berdinek hartu zuten parte (Asier Barandiaran, Ixone Fernandez de Labastida, Argitxu Camus, Gaspar Martinez). Donostiako mahai-inguruan, gainera, AEBko Reno hiriko Nevada Unibertsitatean dagoen William A. Douglass Center for Basque Studies-eko zuzendari Xabier Irujok ere hartu zuen parte bideo-hitzaldiz.

Guztia, efemerideak emandakoaren hainbat argazkiz jantzita.

Erakunde ekintza

Ataun, 2016-12-21



On Jose Miguel eta Euskal Herria

Josemari Velez de Mendizabal

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren lehendakaria

Jose Miguel Barandiaran hil zela hogeita bost urte betetzera gindoazen eta ataundarrak euskal kulturarako adierazi zuena berriro ozen gogoratu behar genuela iruditu zitzaigun bere izena daraman eta berak sortutako Fundazioan. On Jose Miguel oinarritzko pertsonaia izan dugu gure herriaren historian eta ezinbestekoa zaigu behin eta berriz jendartera ekartzea euskal kulturaren patriarkatzat hartuta izan den gizon haren mezua.

Jakintzaren hainbat esparrutan bere goi maisutasuna erakutsi zuen. Hala ere, bere kasuan nabarmenena ez da zer eta zenbat erakutsi zigun, baizik eta NOLA egin zuen. On Jose Miguelek giza estilo sakonaz irakatsi zuen beti, katedra-aulki gorenetatik eta landa- lanik xumeenetako talaiaetik ere. Gizabidea zuen helburu nagusia ekintza guztietan eta ez zuen inoiz hutsik egin.

Gasteizko Apaiztegitik, Ipar Euskal Herriko babes-aterpe behartutik edota bere jaio-terriko Sara Etxetik euskal gizartearen garapen humanoa bilatu zuen etengabe Barandiaranek. Horren egiaztapena da, bere ikerketa-lanen artean ez dugula bat ere aurkituko zientziari garrantzi gehiago ematen dionik pertsonari baino.



Hogeita bost urte eman dira On Jose Miguelen heriotzatik eta berak ereindako baloreak inoiz baino beharrezkoagoak zaizkigu euskal gizartean. Eskuzabaltasuna, zorroztasuna, ongi egindako lanerako gogoia, malgutasuna, apaltasuna, bestearenganako hurbiltasuna, etikotasuna, eragozpenak aukerak bilakatzeko gaitasuna, eta Barandiaranek bere bizitza luzean nabarmen erakutsitako nolakotasun luze baten txertaketa gure eguneroko bizimoduan eginez gero aurrerapauso erraldoia litzateke gizarte kontzientziaren eraikuntzan. Fundazioak xede horrekin egiten du lan.

Jose Miguel Barandiaran Euskal Herriaren ondarea da. Horixe berrerakutsi nahi izan dugu aurtengo jardunaldietan, abenduaren 21eko ekitaldia barne. Eta Ataungo semeak bihotzean zeramatzan euskal lurralde guztietara ireki dugu haren ikasgaia. Aurrerantzean ere On Jose Miguelen baloreei eragitea dagokigu, berak amesten zuen Euskal Herria izango bada. ✱

Joxemiel Barandiaran hil zela 25 urte

Asier Rodriguez

Ataungo alkatea

Jaun-andreok, egun on eta ongi etorri Atauna, Joxemiel Barandiaranen herrira. Dakizuenetz, hemen sortu zen Joxemiel, hor ondoan dugun Peruenezarre baserrian. Hor egin zituen lehen urratsak, eta etxe honetan, Sara etxean, eman zituen azken urteak, harik eta duela 25 urte hil zen arte.

Mutil koxkorra zela, hortxe, jaiotetxearen aurrean jaso zuen amarengandik apaltasun lezioa, gerora bere izaera markatuko zuena. Sagarrez beteta zeuden bi sagarrondoren aurrera eraman eta hala esan omen zion amak: “Ikusten al dituk horko sagar-arbola horiek? Zenbat eta beteago, orduan eta apalago”.

Ondo bereganatu zuen amak irakatsia, apaltasuna izan baitzen Joxemielek egin zuen ibilbide oparoaren eta lan eskerbaren ezaugarri nagusia. Apaltasunez baina etengabe, lan ikaragarria gauzatu zuen: zenbat bilketa, zenbat ikerketa, zenbat idazlan... Obra askotarikoa utzi zuen, eta oinarri ezin hobea ikertzen jarraitu nahi dutenentzat.

Dakizuenetz, lehenbiziko ikerketa Ataungo Jentilbaratzan egin zuen, gero asko ibili zen kanpoan, baina beti izan zuen lotura estua jaioterriarekin. Eta, zalantzarik gabe, asko zor dio Ataunek Joxemieli. Ataun eta Joxemiel bikote banaezina izan ziren bizi



izan ziren urteetan, eta oraindik ere halaxe dira. Herritik kanpo gabiltzanean, eta ataundarrak garela esaten dugunean, zenbat aldiz entzun ote dugu, harrotasunez entzun ere, honako esaldi hau: “A, Barandiaranen herrikoa zara orduan!”. Eta entzuten jarraitu nahi dugu, noski.

Horretarako, etorkizunean ere bikote banaezina izan daitezen Ataun eta Joxemiel, lanean eta elkarlanean jarraituko dugu, apaltasunez, baina etengabe, herri hau egiten, herri honentzat lanean.

Eskerrik asko egun berezi honetan Atauna etorri zareten denoi, eta nahi duzuen arte. ✱

Europa, Barandiaran eta baloreak

Argitxu Camus Etchecopar

Jose Miguel de Barandiaran hil zeneko 25. urteurrenean, Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak “Europa, Barandiaran eta baloreak” izendutako mahai-inguru zikloa antolatu du.

Hori antolatzeko unean, Fundazioaren asmoa Barandiarani beste prisma batetik begiratzea zen, bere figuraren irudi globalagoa eraikitzeko.

Asier Barandiaran filologo eta Gasteizko kanpuseko irakasleari Barandiaranen baloreetaz mintzatzea tokatu zaio. Asierrek ongi adierazi digun bezala, balore kate luze batek ezaugarritzen zuen: apala, zintzoa, solidarioa zen, besteak beste. Kristau baloreetan sustraitutako gizona genuen. Bere bizian oztopo asko pairatu behar izan zituen baina oztopoak aukera bilakatzeko indarra zuen. XX. mende hasieran euskal gaiei interesatzeak ez ulertze asko eragin zizkion eta Gerra Zibila denboran erbesteratu behar izan zuen ere, baina langilea eta pertseberantea zen unean, ez zuen inoiz amore eman eta lanean segitu zuen.

Ixone Fernandez de la Bastida, EHUko antropologia departamenduan irakasle da eta “Barandiaran, euskal gizartea eta kultura” gaia jorratu du. Euskal antropologiari



asko ekartzeaz gain Barandiaran aktibista soziala izan zela ere ohartarazi digu Ixonek adibide ezanguratsu batzuk garatuz. Bi aipatuko ditugu hemen. Barandiaran euskal gaiak aztertzen hasi zelarik, XX. mende hasieran, Europatik zetorren arrazaren inguruko diskurtsoa oso sartua zegoen. Baina Barandiaranek eragin hori arintzen lagundu zuen, ikerketa objetua euskal arrazatik euskal etniara desplazatuz. Bigarrena, euskal kulturaren esparru geografikoa Eskual Herri osora hedatu zuen, atlantiar isurialdeko lurraldeez gain mediterraneanarrekoak ere – Nafarroa eta Araban- kontuan hartuz.

Gaspar Martinez Gasteizko Teologia departamenduko irakaslea, “Barandiaran, zientifikoa eta sinesmena”z mintzatu zaigu. Barandiaran, fede handiko gizona izateaz gain, zientzia gizona zen ere bai. Erlijioa eta zientzia uztartzen jakin izan zuen. Haren ustez biak bereiz ezinak ziren. Gasteizko Seminarioan irakasle zela, lan itzela eraman zuen, Gasparren erranetan, Seminarioa “excellencia zentro” bilakatu nahian. Barandiaranek eraginez aldaketa sakonak gertatu ziren Seminarioan: Zientzia Naturalak irakasten hasi ziren adibidez. Irakaspen metodoan ere bere ekarpena handia izan zen, seminaristen parte hartze aktiboa ikerketa eta experimentazio ezberdinetan garatu zuelako. Azken adibide bat aipatzeko, Barandiaran izan zen aldizkari eta ikerketa laborategi ezberdinen sortzaile eta eramailea, Gerra Zibilak xede horiek guziak gelditu zituen arte.

Nihaurek, “Barandiaran eta Europa” gaia jorratu dut. Oso gazte zela, zientzia europearrari ireki zitzaion eta honek euskal gizarte tradizionala ikertzeko beharrezkoak zituen tresnak ekarri zituen. Liburuek ekartzen ahal zutena baino urrunago joan behar zuela argi zuen eta orduko espezialistenganik ikastea erabaki zuen, Europako herri ezberdinetara joanez eta formatuz. Hortik denbora gutira, kulturen ikerketarako europear mugimenduan aktiboki parte hartu zuen, nazioarte mailako ikerlaria bilakatu. Bere lanek ongi etorri beroa izaten zuten europear medio zientifikoetan, espezialistek txaloturik. Euskal gizarte tradizionalaren gaia, Europa eta mundu mailako esparru akademikora eraman zuen Barandiaranek.

Donostiako mahai-inguruan, 5. partehartzaile batek bere ekarpena “Barandiaran eta erbestea” gaiaren inguruan egin zuen. Hau dugu Xabier Irujo, Reno hiriko unibertsitatean William Douglass Center for Basque Studies-eko zuzendari eta irakaslea. Erbestetik Barandiaranek eraman lana oroitarazi digu, izan proiektu kulturalen sustapenean edo proiektu zientifikoaren gauzatzean, *Ikuska* eta *Eusko Jakintza* izeneko aldizkari zientifikoak sortuz, besteak beste.

Mahai-inguruetan publikoak ere aportaziok egin ditu, oso aberasgarriak, Barandiaranekin izan bizipenak gogoratuz.

Barandiaran gizonaz, bere ibilbide intelektual zein pertsonalaz gehiago ikasteko eta bere garaiko giroa zein zen hobeto ulertzeko lehen mailako iturri bat eskura dugula jakin behar da: bere egunerokoaren parte bat argitaratu du Barandiaran Fundazioak, 1917 eta 1953 urte bitartekoa, irakurterraza eta balio handikoa dena. Egunerokoak argitaratzen segitu behar du Fundazioak, kulturaren onurarako. ✱

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren mintzaldia Barandiararen heriotzaren 25. urteurrenean

Uxue Barkos

Lehendakari jauna
José Miguel de Barandiaran Fundazioko lehendakari jauna (*Josemari Velez de Mendizabal*)

Ataungo alkate jauna (*Asier Rodríguez*)

Jaun-andreak.

Egiazko ohorea da gaur hemen egon ahal izatea, On Jose Miguel Barandiaranen heriotzaren hogeita bosgarren urteurrenean; ataundar ospetsu horrek, “euskal kulturaren patriarka” askoren iritziz, lotura sendoa eta iraunkorra izan zuen beti Nafarroarekin.

Nafarroan gauzatu zuen bere jardueraren parte garrantzitsu bat Arkeologia eta Etnologia alorretan. Deskubrimendu nabarmenak ekarri zizkien bi jakintza-alor horiei eta, batez ere, metodologia zientifiko bat, ikasleei arduraz erakutsi ziena, bideak urratuz ondoko ikerkuntzak fruitu eman zezan. Beraren ikerlanak ondare zabal-zabala utzi zuen, bai argitalpen kopuruagatik, bere jarduera kultural oparoaren emaitza; bai, berezi-bereziki, gaur egun arte izan duen proiektzioagatik, bere irakaspenak jaso zituztenen bitartez, On Jose Miguelek beti partekatu izan baitzuen bere jakintza, euskal mundutik unibertsaltasunari begiratzen zuena.



Arestian nioenez, Barandiaranen harremana Nafarroarekin oso goiz hasi zen; izan ere, XX. mendeko lehen hamarkadetan taldea osatu zuen jada Telesforo Aranzadi eta Enrique Egurenekin, Pío Barojak isekaz hiru troglodita triste deitzen zuen hirukotea eratuz, gure herrian ikerketa arkeologikoaren ikerketa-talde aitzindarizat jotzen den hori.

1919an ekin zioten jada Ataun-Borundako, Altzaniako eta Urbasako arkeologia gunetako dolmenen indusketa metodikoari, dolmen gehienak Barandiaranek berak aurkitutakoak zirela, Aralar mendiaren Gipuzkoako aldean eginiko hainbat prospekziotan.

Hogeiko hamarkadan eta 1932ra bitarte, Aranzadik eta Barandiaranek prospekzio eta indusketa lanetan segitu zuten eta dolmen berriak aurkitu zituzten ordurako ezagunak ziren sektoreetan. Bestelako dolmen-eremuak ere identifikatu zituzten, hasierako gunetatik oso urrun, hala nola Zaraitzun, Aezkoan, Erroibarren eta Baztanen; baita leize-zuloetako aztarnategiak ere: Arraizko Abautzen, eta Zugarramurdin, besteak beste.

Zoritzarrez, gerra zibilak etena ekarri zien ikerlan horiei, eta erbestea, On Jose Migueli, Sarara joan behar izan baitzuen bizitzera 1953ra arte; urte hartan Tovar irakasleak, Salamancako Unibertsitateko errektoreak, deia egin zion hasierako mintzaldia eman zezan *Manuel de Larramendi* izeneko Euskara Katedra sortu berrian.

Horrek Barandiaranen bizitzako beste pasio handienetako batera garamatza, euskarara. Nahiz eta ez zuen sakon aztertu, filologia ez zelako izan errotik ikertu zituen jakintzagaietako bat, euskararekiko eta euskaldunondako maitasuna bizi-bizi ageri da haren lan guztian, eta haren ekarpen herrikoienetako batzuen erdigunean dago, hala nola euskal substratu kulturalako mito eta kondairen bildumetan.

Hasieran ikerketa arkeologikoan aritu bazen ere, Jose Miguel Barandiaranek nafar kulturari egin zion ekarpenik handiena Antropologiaren bidez etorri zen, Nafarroako Unibertsitateko Euskara eta Euskal Kulturako Katedrarekin izan zuen harremanaren bitartez.

Irakaskuntza-lan horrek aukera eman zion ikertzaile, profesional eta zaletuen belaunaldi oso bat prestatzeko, lan itzela egin baitzuten nafar bizimodu tradizionala biltzen XX. mendeko azken herenean. 1963an, 74 urte zituen jada, konpromisoa hartu zuen Antonio Fontán Filosofia eta Letren fakultateko orduko dekanorekin, irakasle aritzeko ikasgela horietan eta ikerketa-programa handinahi bat garatzeko: Euskal Herriko Atlas Etnografikoa; helburua izanik ikasleen formakuntza sendotzea, landa-lanaren bitartez eta sintesiak prestatuz, tokiko monografia etnografikoak osatzearen, Barandiaranek berak asmatutako inkesta-metodoa aplikatuz.

Proiektu hari esker sortu ziren Etniker taldeak, gaur egun oraindik ere lanean dihardutenak, eta argia ikusten ari da Euskal Herriko Atlas Etnografikoa, liburukiz liburuki plazaratzen ari dena.

Unibertsitateak interes bizia izan zuen On Jose Miguel Katedrari atxikitako irakasleetako bat izan zedin, eta garbi ikusten da hori proiektuaren hasieratik beretik, Euskal Etnologia ikastaroa lantzeko eta emateko arduradun gisa agertzen da-eta.

Barandiaran 17 urtez egon zen Katedrari lotua, 1980ra arte. Aro hartako On Jose Miguel Barandiaranen bizitza publikoa jasota gelditu da Fundazioak Sara Bilduman argitaratu duen liburukian, non bildu egin baitira Euskal Etnologian eman zituen eskolak 1973-74 ikasturtean.

Gure Komunitatearen kultura aztertzen eta irakasten egin zuen lan horren aitortpena jaso zuen On Jose Miguelek 1989an, Nafarroako Urrezko Domina jaso zuenean, Foru Komunitateak ematen duen saririk gailena.

Ibilbide horrengatik guztiarengatik, agerikoa zen Nafarroako Gobernuak ere osatu behar zuela José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 1988an sortutakoa On Jose Miguelen beraren ekimenez. Eusko Ikaskuntzako lehendakaria zen garai hartan eta pentsatu zuen egokia zela entitate bat eratzea bere ekoizpen kultural nabarmenaren garrantzitsuen gordetzeko eta zabaltzeko.

Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, hiru euskal aldundiek eta Ataungo Udalak beren tokia dute Fundazioaren organo erabakitzaile gorenean, patronatuko kide instituzionalak diren aldetik. Azken urteotan Nafarroako Gobernuaren laguntzetan etena egon den arren Fundazioaren finantzaketarako, sail hori lehengoratu egin da 2016ko aurrekontuenetan, eta gure asmoa da aurrerantzean ere hala segitzea.

Laguntza horri esker, Barandiarani buruzko mahai-inguru bat egin da abenduan bertan, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian. Bestalde, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak urte hasieran eman du argitara, Fundazioarekin batera, *Abenduaren 31 Jose Migel Barandiaranen bizitzan. Bere egunerokoetan idatziak* liburua, obra zoragarria zinez, biltzen dituen bere egunkarian urtero idatzi zituenak abenduaren 31n, 1917tik 1989ra.

Testuen hautaketa labur horren bidez, liburuak aukera ematen digu hobeki ezagutzeko mende bat baino gehiago bizi izan zen gizonaren zertzelada autobiografiko garrantzitsuak: *“poza zein haserrea islatzen dituzten lerroak –hitzaurreak dioen bezalagerra, erbestea eta etxera itzultzea; garaian garaiko jendartearen erradiografia pertsonala...”* eta askoz ere gai gehiago.

On Jose Miguel hil zela 25 urte bete diren honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da sakon hausnartzea ataundar unibertsal honen ekarpen handiaz gure gizartearen ondare kultural eta humanoari.

Gaur etengabe bizi dugun aldaketa prozesu honetan, garrantzitsua da ez soilik On Jose Miguelen lorpen zientifikoak aldarrikatu eta sustatzea, baizik eta, batez ere, berak bere bizitzaldi osoan defendatu eta zabaltu zituen giza balioak ere, ezagutzarekin eta zorrotasunarekin erakutsi zuen konpromiso zintzo eta garbia. Konpromiso horixe da, gure ustez, euskal kulturen sustatzen jarraitu behar duguna XXI. mendean.

Bukatzeko, haren pentsamenduetako bat gogoratu nahiko nuke: *«Nahi nuke nitaz oroitzea maitatu izan duen gizon baten gisan. Pertsonen arteko maitasuna da garrantzitsuen»*.

Esker mila. ✱

Barandiaranen heriotzaren 25. urteurrena. Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariaren mintzaldia

Iñigo Urkullu

Nafarroako Gobernuburu presidente andrea, Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren presidente jauna, ahaldun nagusi jauna, Ataungo alkate jauna, Sarako alkate jauna, sailburu, Eusko Ikaskuntzaren presidente jauna, jaun andreok, herri agintariok, egunon.

Gogoan dut, duela 25 urte, Jose Miguel Barandiaran hil zenean, pena eta hutsunea sentitu genuela. Gaur, bere ondarea eta eredu bizirik jarraitzen duela ikusi dugu. Gaur, elkarrekin egin dugu berak ehunka bider egiten zuen ibilbidea. Bide honetan elkarrekin gaude eta elkarrekin jarraitu nahi dugu aurrera. Hori da antropologoaren irakaskuntza eta mezua. Bere jakinduria, pertsonen eta gizartearen ezagutza oinarri hartuta, bide lagunez inguratuta, aurrera egiten jarraitu behar dugu.

Hemos recorrido el trayecto que realizaba José Miguel Barandiaran cientos de veces. Meditando, reflexionando, pensando. Trabajando. Tratando de conocer y comprender mejor el camino de nuestro Pueblo, la historia, la personalidad, las formas de vida y relaciones humanas. Tratando de aportar más conocimiento para construir un futuro mejor. El mejor homenaje que le podemos tributar es seguir recorriendo este camino juntos. Caminar juntos instituciones y entidades privadas, colaborar para que el País del euskera siga creciendo.



Esta Fundación honra a una persona íntegra y comprometida, un Doctor, una persona sabia que predicó siempre con el ejemplo del trabajo y supo crear escuela.

Hoy, en pie sobre la tierra vasca que amó y por la que tanto trabajó, le dedicamos este homenaje y comprometemos seguir trabajando juntos para conocer mejor nuestro pasado y construir un mejor futuro para nuestro Pueblo.

Barandiaran pertsona langilea zen, positiboa eta baikorra. Gaur balio horiek berrartu behar ditugu, gaurkotu, ibilbidean aurrera egiten jarraitzeko. Ikerketa eta zabalkundea bultzatzen jarraitu behar dugu.

Katea ez da eten eta “lana eginez goaz aurrera, kate horretan denok batera”.

Gaur Jose Miguel Barandiaran historiagilea, arkeologoa, antropologoa eta etnografoa; kultura gizona, pertsona handia, pertsona ona, gogoratzen eta omentzen dugu.

Nola?

Bere ereduari jarraipena ematen. Bere ondarea zabaltzen eta indartzen. Bere ibilbidea elkarrekin egiten. Elkarrekin eraiki behar dugu etorkizuna, hainbeste maite zuen Euskal Herri honentzako. Hori da, gaur, elkartzen gaituen xedea.

Eskerrik asko denoi.✱



Agintariak Ataungo ekitaldira iristen



Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko Patronatuko kideak agintariekin



Sara Etxea bisitatzen

Hitzaldiak

Europa, Barandiaran eta baloreak





*Gaspar Martinez, Argitxu Camus, Ixone Fernandez de Labastida eta Asier Barandiaran,
“Europa, Barandiaran eta baloreak” mahai-inguruetako hizlariak*

Barandiaranen baloreak gaur egungo gizarteari aplikatuak

Asier Barandiaran Amarika¹

Los valores de Barandiaran en la sociedad actual

Barandiaran fue una persona arraigada en los valores cristianos. Pero por otro lado, el estar en contacto con culturas diversas le ofreció visiones diferentes y siempre apostó por la persona. Solía decir “Yo desearía que me recordaran como una persona que ha amado el amor”. La bondad, agudeza, honestidad, solidaridad, verdad, justicia, el trabajo bien hecho y una cadena larga de valores es lo que definen a Barandiaran.

Les valeurs de Barandiaran appliquées à la société d’aujourd’hui

Barandiaran était une personne aux valeurs chrétiennes très ancrées. Par ailleurs, il était en contact avec des cultures différentes ce qui lui fit ouvrir les yeux sur des points de vue différents, mais tout ce qu’il entreprit favorisa toujours l’humain. Il répétait souvent: “J’aimerais qu’on se rappelle de moi comme une personne qui a aimé l’amour”. La bonté, l’honnêteté, la rigueur, la solidarité, la vérité, la justice, le travail bien fait et bien d’autres valeurs caractérisent Barandiaran.

Barandiaran’s values in contemporary society

Barandiaran was rooted in Christian values. However, on the other hand, he offered different visions by being in touch with diverse cultures and was always committed to people. He would often say ‘I hope I will be remembered as a person who has loved love’. Kindness, sharpness, honesty, solidarity, truth, justice, work well done, and a long chain of values are what define Barandiaran.

¹ Lan hau LAIDA (Literatura eta Identitatea, UPV/EHU) ikerketa talde kontsolidatuaren baitan kokatzen da IT 1012/16, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatua.

Erabilitako laburdurak

O.C.: (1972-1984) *Obras Completas de José Miguel de Barandiaran*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

JMB: Jose Miguel Barandiaran

JCB: Julio Caro Baroja

Sarrera

Ez gara gure baitakoak

Joxemiel Barandiaranen irudia erakargarria egin zait betidanik eta ezaguna iruditu zait ia betidanik. Barandiaranekiko dudak gertutasuna, hasteko, hontan oinarritzen dut: abizen berbera izateaz gain, hainbat ikuspuntutatik bat nator berarekin eta bere bizitzan izen duen jarrerak beti liluratu eta harritu egin nau. Balore² asko zituen JMBek, eta baloreak zituelako balioak eransten zizkion egiten zituen gauzei ekarpen oparoa bilakatuz eta, azken finean, horrela bere gizatasuna hedatu egiten zen.

Hala da, JMBek ekarpen asko eta asko egin zizkion Euskal Herriko Aurre Historiari, Antropologiari, Palentologiari eta Entografiari³. Ni, ordea, euskal filologiaren arlokoa naiz eta nire JMBen balorazioa ohikoak ez diren zenbait alorretan oinarrituko da: 1. Euskara eta herri-literaturarekiko beraren arreta; 2. Apaltasuna; 3. Oztopoak aukera bihurtzeko gaitasuna; 4. Lana: balore harrobia. Horrela izendatu ditut alorrok eta ondorenean aletzen ahaleginduko naiz.

1. Euskara eta herri-literaturarekiko arreta

Denik ez da esan behar, baina ez denik ez da sinestu behar

Ez da ideia original bat, baina gizon handi honek erakutsitako gauzen artean hizkuntza eta kultura banaezinak direlako ideia dugu. Hizkuntza kultura baten gauzatzerik gorena dugu. Hizkuntza neurri handi batean immateriala da, jakina, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa. JMBentzat hizkuntza nola edo hala ikertzea, euskaldunen ahozko produkzioari erreparatzea ezinbestekoa zen eta gainera kasu askotan hizkuntza izan da haren ikerketa askoren lehen gaia.

2 Baloreen gaian ez gara sartuko hemen. Jende askok onartzen du giza balorea norberaren gizatasunean (gizatasunaren alde onenetan) sakontzeko joera bat dela. Hona hemen Nieto Martinek ematen duen balorearen definizioa: "Los valores suelen definirse/ entenderse como un modelo ideal de realización personal que intentamos plasmar en nuestra conducta, sin llegar nunca a agotar dicha realización, y constituyendo una creencia básica a través de la cual interpretamos el mundo, damos significado a los acontecimientos y, naturalmente, a nuestra propia existencia [...]" Nieto Martín 2002:23.

3 Jose Miguel Barandiaran dagoeneko euskal kulturaren sinbolo bat bilakatu da, tamainaz txikia izan arren, erraldoi bat eta horren frogetako bat Santiago de Pablok koordinatu eta argitaratutako *100 Euskal Sinbolo* lana dugu (Tecnos, 2016), non JMB sinbolo bezala azaltzen zaigun, de Pablo 2016:198-199.

Dagoeneko egile honen ekarpena baloratzearan arlo historiko, antropologiko edota etnologikoa oso landuak izan dira eta ez dagokit niri orain gauza berririk gehitzea. Beste aldetik, ez dirudi ahalegin handirik egin denik egile honek hizkuntza nola landu duen baloratzearan eta horregatik ausartzen naiz zerbait ekartzera arlo honetan.

JMBen atal hau kokatzen hasteko, komeni zaigu aipatzea euskararen oinarri etnologiko eta antropologikoak bere ustez zeintzuk ziren. Nafarroako Unibertsitatean 1964tik 1978ra eman zuen etnologia ikastarotik hartuta daude (zehazki 1973-74 ikasurteko oharra da).

“Euskara ez dute euskal herritar guztiek hitz egiten, edo euskal arbasoek dituzten guztiak ez dira euskaraz mintzo. Euskal Herritarren artean gutxiengo batek egiten du euskaraz. Baina bai batzuen bai besteen ondare kulturala da, euskal komunitatearen ezaugarria da.

Batzuentzat, euskaldunentzat, ideiak eta sentimenduak adierazteko eta gizartearen komunikatzeko bidea da. Askorentzat zapaltzen duten lurra adierazi edo ezagutzeko bidea da, lantzen duten lurra edo bizi diren paisaia ezagutzekoa. Euskal Herria osoan barrena bizi diren aunitzendako eta munduan barrena bizi diren euskal herritar askorendako [...] beren izena eta beren euskal jatorria adierazteko modu bat da euskara.

Euskara euskal komunitatearen pentsamendu eta jardueraren zenbait arloarekin dago lotua. Horregatik euskararen hiztegiak beren kulturaren ezaugarriak eta beren historiaren faseak ere adierazten ditu.”⁴

Zentzuzko oinarri edo printzipioak ditu, edozeinek onartzeko modukoak. Onartuz gero, gainera, hainbat borroka linguistiko saihestuko genituzke batzuek eta besteok. 1916an JMB Ataungo Jentilbaratzan bere ikerketak egiten hasten denetik⁵, bere lan egiteko moduak izango dira: kanpo-lana, behaketa, indusketa, neurketa, eta abar (eta guztien konbinazioa). Horri gehitu behar zaio ahozko testigantzak jasotzearen prozesua, berak egina edo bere inguruko ikerketa talde batek egina. Horrelako transkribaturako testigantzak Barandiaranek berak sortutako *Eusko Folklore*⁶ argitalpenean agertzen hasiko dira.

Euskal etnologia eta arkeologia ikertzeko metodo berri horrek Wilhelm Wundt (1832-1920) irakaslearekin izandako elkarriketan dauka bere jatorria, 1923an egonaldi bat egin baitzuen JMBek

Arestian esan bezala, 1921etik aitzina *Eusko Folklore* martxan jartzeaz batera, zenbait pasarte, anekdota, ipuin eta elezahar argitaratzen hasiko da. Batzuk berak bildutakoak dira. Beste batzuk bere lankide batzuek bildutakoak. Hasierako hartako kolaboratzaileak (Gerra Zibilaren artekoak) honako hauek dira (*Eusko Folkloren* agertzen

4 Beguiristáin, 2000: 99.

5 Aizpurua, 1999: 58-60.

6 Arozamena 2016.

dira haien izenak): Tiburcio de Ispizua, Félix de Zamalloa, Juan de Irurogetagoyena, Pedro de Maiz, León de Bengoa, Ricardo de Ragueta, Pedro de Atutxa, José de Etxebarri (O.C., II).

Bildutako ahozko testigantzei esker 1921ean jada euskal mitologiaren ezagutza zabala eta sakona zuen jada. Urte hartan (1921) Durangon emandako hitzaldi batean (O.C., V. 195-212) horrela erakutsi zuen Barandiaranek. Bere bizitzan zehar ezagutza horretan sakontzen joango zen, jakina denez.

Antzinako euskaldunen pentsamendu magiko eta mitologikoaren lekuko dira material haiek eta bilketa-lan hari esker izaki eta pertsonaia mitologiko haiek bizirik diraute gaur egun ere nola edo hala. Material haiek, beraien balio etnologikoarengatik ez ezik, beraien balio linguistiko, literario eta estilistikoarengatik ere oso baliotsuak izaten jarraitzen dute. Peru eta Mariren ipuinak⁷, esate baterako, XX. mendearen aurreneko hamarkada haietan bildu zituen JMBek. Transkripzioetan saiatzen da tokian tokiko mintzaira ondo eta leialki islatzen.

Aldiz, idazten zuenean, hizkuntzaren eredu estandarra erabiltzen saiatzen zen. XX. mendearen hasieran, ezaguna denez, eredu estandarrik arrakastatsuena gipuzkera osotua deiturikoa izan zen⁸. 1968ko urtetik aurrera gaurko Euskara Batua ezarri zen literaturarako eredu estandar bezala. 1968an JMBek 79 urte zituen jada, adinean sartua zegoen, baina hori ez zen oztopoa izan eredu estandar (orduan) “berria” erabiltzeko. Eta halaxe egin zuen.

Baina euskara baturako hurbilpen hartan lapurtera edo nafar-lapurteraren⁹ erabilerarekin nahastu egin zuen, ziurrenera eredu estandar martxan jarri berria aberasteko asmoz. Zergatik lapurtera? Hori aurrerago azalduko dugu.

XX. mendearen hasieran garbizaletasun lexikoa jarri zen modan, ezaguna denez. Sabino Aranek eta bere jarraitzaileek onartutako zenbait neologismo ere agertzen dira Barandiaranen idazkietan. *Lehen euskal gizona*, delako liburuan, abididez, *enda* (arraza), *izkilu* (arma), *izpelki* (*bivalvo*)... hitzak aurkitzen ditugu. Jose Miguelen eskuizkribuetan ere neologismo batzuk aurkitzen ditugu (gero agian argitaratutako testuetan aurkitzen ez ditugunak). Esate baterako,

Euskalerriko Ikastola nagusia (<Euskal Herriko Unibertsitatea),
agertu bat (<bisita bat),
euskal-urrukuskiña (<euskal diaspora).

1920 urtearen inguruan Kortezubín bazuen informanteren bat edo beste eta zenbait istorio jaso zizkion. Transkripzioetan Mendebaldeko euskalkia ageri da, Gernika aldeko aldaera izanik. Ez da inola ere JMBen euskalkia, baina zehaztasun handiz dago jasota, eta koherentzia handiz. Bizkaitar ez den batentzat ez da erraza, adibidez, adizkiak

7 Xabier Kaltzakortak (1992) Peru eta Mariren ipuinen estudio paregabe bat egiten du bere “Bizkaiko Herri-ipuinen idatziak” delako artikuluan eta bertan Jose Miguel Barandiaranen erreferentzia ere ematen du.

8 http://www.euskara.euskadi.eus/r59-lurcontd/eu/contenidos/termino/_c02449/eu_g_1950/g1950.html.

9 Gaur egun Koldo Zuazo hizkuntzalararen banaketa dialektala oso onartuta dago. Banaketa horren arabera Saran hitz egiten den euskara “nafar-lapurtera” litzateko, Ataunen hitz egiten den euskeratik (“erdialdeko” euskalkian kokatua) desberdina neurri batean, Zuazo 2003.

ondo jasotzea, eta Barandiaranek ondo jasotzen ditu: (*deustezanak/ zittuzen/ euken, / deittela/ ... < dizkidatenak, zituen, zeukan, dadila*).

Eusko Folkloren bildutako transkripzioetan Sabino Aranak proposatutako ortografian oinarrituta dago. Ezaguna da ortografia sistema hura 1897an argitaratutako *Lecciones de ortografía del euskera vizcaíno* lanean oinarritzen dela. Mendebaleko ipuinak edota testigantzak transkribatzean, bokalarteko soinu sabaikaria (kontsonante-erdia) “j” grafemarekin irudikatzen da, Sabino Aranaren proposamenari jarraiki, baina ez Sabino Aranak asmatua, Pedro Pablo Astarloa¹⁰ idazle durangarrak erabiltzen baitzuen jada:

Bitoria > *Bitorija*

harria > *aríje*

azpian > *azpijen*

Beste adibide bat “r” gogorra edo litzateke, tildedun “r” batekin irudikatzen dena: aríje, etofiko, irugařen, gofi...

Gerra aurrean idazle askok jarraitu zuten korrante ortografiko hura. Batzuk aipatzearren, Lizardi, Lauaxeta, Orixe... izan ziren horietako batzuk.

Kontu morfologikoei gagozkiela, *atzizkiak* adierazteko, 80ko hamarkadan oraindik (bere esku-izkribuetan bai, argitalpenetan ez), apostrofe (‘) baten ostean idazten zituen, Sabino Aranaren sistema ortografikoari jarraiki:

Lejona’n (Leioan)

Katalin’ek (Katalinek)

Dar-dar’en ipuie (Dar-darren ipuina)

Arlo linguistikoan ez ezik, arlo literarioan mugarri handiak dira honako lanak: *Euskal Mitologia* (1984) eta *Euskal Mitologiaren Hiztegia* (*Diccionario Ilustrado de la Mitología Vasca*).

Hizkuntzari dagozkion kontuetan, zilegi bekit azken ohar bat egitea. 1954an Antonio Tovarrek Salamankako unibertsitateko Manuel Larramendi Katedra eskaini zion eta gutun bidezko harremanetan ikusten da JMBen interesa, euskal historia aurrea eta etnologia irakatsi eta ikertzeaz gain, hizkuntza ere ikertu behar zelako horretan; izan ere, inkesta linguistiko batzuk burutzeko proposamena egin zion JMBek Antonio Tovar hizkuntzalariari¹¹. Honen guztiairengatik, ez da harritzekoa 1965ean Euskaltzaindiak JMB euskaltzain oso izendatu izana¹².

Herri literaturaren arloan, bereziki eragin handikoak izan ziren. Azken hiztegi hau Barandiaranen *Jan Osoaken* ere ageri da, azken alea izaki. Bere inkesten emaitzak modu sistematiko batean bildu zituen eta ahanzturatik erreskatatu egin zituen hainbat istorio, izaki mitologiko eta ipuin miresgarri. Erreskatatzeaz gain publikoaren esku utzi zituen horiek emaitzok¹³. Helduentzako literatura fantastikoa ez da oso landua izan euskaraz eta egin den kasuetan (batez ere haur eta gazte literaturan), Barandiaranek bildu eta

¹⁰ Estornés Zubizarreta 2016.

¹¹ Barandiaran Irizar 1995:13.

¹² 1928an dagoeneko Euskaltzain Urgazle izan zen izendatua, Aizpurua 2000:8.

¹³ Barandiaran Amariika 2011.

deskribatutako izakiak izaten dira agertzen direnak. Egile bat aipa genezake, bide horretatik doana: Juan Manuel Etxebarria¹⁴. *Gure fabulak bertsoz* (1996), *Gorbeia inguruko Etno-ipuin eta esaundak* (1995), *Euskitz* (2002) eta *Gabonetako ipuinak* (1994), lanekin¹⁵.

Ahozko literaturarekin jarraituz, JMBek eta bere lankideek bertsoak, koplak eta esaerak ehundaka biltzen dituzte. Hurrenkera kronologiko bati jarraiki, txiki-txikitatik entzun zuen bere gurasoengandik honelakoak:

Jesus, Maria, Jose

Santa Ana ta San Joakin,

goazen guztiok

zerura alkarrekin.

Gerra aurrean, Zeanuri (Bizkaia) herrian bertso-sorta bat jaso zuen non baserritarren arteko zenbait liskar aipatzen diren, eta baita herriko elizak izan zuen sutea kontatzen den (idatziz jarri arte, badirudi transmisioa ahoz izan zela) (O.C., II, 173-177). Bertsoen bilketa ere JMBen interesen artean zegoen eta horretan ere bere ekarpentxoak egin zuen. Horren frogagarri, adibide moduan eta Euskal Herriko beste mutur batera joanda, Zugarramurdin, Nafarroan Gau Zaharrea kantatzen ziren bertso batzuk bildu zituen 50eko hamarkadan. Herriari buruzko monografiko bat egiterakoan bildu zituen 1941. urtean. (O.C., XXI, 326-327). 12 bertso ditu eta 1941ean Kose Larzabal izeneko bati jaso zizkion.

Metodologia berriz ere gogora ekarrita, “La guía para una encuesta etnográfica”/ “Inkesta etnografikorako gida” delakoa (O.C. XX, 226-309) mugarri bat da, besteak beste, ahozko literaturaren edota herri literaturaren hainbat material jaso ahal izan baitira. *Atlas Etnográfico de Vasconia* Barandiaranek diseinatutako beste proiektu bat da, berak sortutako Etniker taldekoek aurrera eraman dutena.

Bada 1990etik Etniker Euskalerrira-k 7 liburuki argitaratu ditu, XX. eta XXI. mendeetako kultura tradizionala kontuan hartuta. Lehenengo liburukia *La alimentación doméstica* (1990) izan zen; jarraian *Juegos infantiles en Vasconia* (1993) *Ritos funerarios* (1995), *Ritos del nacimiento al matrimonio* (1998), *Ganadería y pastoreo* (2000), *Medicina popular* (2004) eta azkena, *Casa y Familia* (2011).

Haur munduari eskainitako *Juegos Infantiles en Vasconia* (1993) liburuki mardulean, ahozko literaturaren altxorarekin egiten dugu topo. Bertan (gaztelaniaz eta euskaraz) makina bat ipuin, sehaska-kanta, aho-korapilo, zozketa-formula, igarkizun eta abar luze bat topatzen ahal dugu Euskal Herrietan barrena bilduta eta asko eta asko bilduak izan diren arte ahoz belaunik belaun transmitituak izan direnak.

14 “Escritor en euskera nacido en Zeberio (Bizkaia) en 1948. Doctor en Filología, trabaja como profesor. Correspondiente de Euskaltzaindia y miembro del grupo de etnografía Etniker, ha hecho investigaciones en el campo de la etnolingüística. Ha escrito tanto en dialecto vizcaíno como en euskera unificado”, Ibagutxi, 2013.

15 Jarraitzailea ez, baina Barandiaranen lanen ezaguna izan omen zen Erich Krois, FORSCHUNGSINSTITUT FÜR EUROPÄISCHE GEGENWARTSKUNDE erakundekoa (Europa Garaikiderako Ikerketa Institutua) eta esanguratsua da harekin jarri zela harremanetan Europako Literatura Hiztegia egiten ari zen garaian, 1955eko uztaillean, Tubingako unibertsitatean JMBen erreferentzia eman ziotelako, Barandiaran Irizar 1995:22.

Orain arte aipatutakoak badu bere isla Euskal Haur eta Gazte literaturan. Hainbat hamarkadatan debekutan bizi eta gero, pasa den mendeko 80ko hamarkadan hezkuntza sisteman eskaera handia izan zen euskal testuena. Hamarkada hartan Elkar argitaletxeko “Axut” bilduma agertu zuen eta bertan euskal mitologia da nagusi (JMBek bildutako izaki mitologikoekin). Gerora eta azken urteotan beste titulu batzuk nabarmentzen ahal ditugu, sakon izateko asmorik gabe. Honek zerbait erakusten digu: Euskal Mitologia euskarri ezinbestekoa bilakatu da fantasiazko haur eta gazte literaturan: ARRIETA, Yolanda; CABALLERO, Maite (marrazkiak) (2012). *Basajaun eta Martin*. Erein, Donostia; OLAIZOLA, Jexux Mari *Txikilu* (2010): *Euskal mitologia haurrentzat*. Elkar, Donostia; OLAIZOLA, Jexux Mari *Txikilu* (2000): *Ausarta eta panpoxa Tartaloen basoan*. Elkarlanean, Donostia, eta abar.

Gaur egun JMB bera ia ia literatura pertsonaia bilakatu zaigun. Egin dizkioten biografiez gain, haur literaturan, adibidez pertsonaia bezala ageri zaigu, ilustrazioekin eta guzti *Jose Migel Barandiaran. Herria bihotzean zuen jakintsua* (Elkar, 2011) delako lanarekin, Txikilu (Jose Manuel Olaizola) idazleak egina¹⁶.

JMBek bere kulturari dion maitasuna hizkuntzara ere hedatzen da eta ez da baztertzalea. Joera hori zenbaitetan azaldu izan zuen hainbat konparazioekin. Esate baterako, atal hau ixteko Martin Ugalde idazlearekin izandako elkarrizketa batean hau zioen:

“Euskal Herria ez da geografia bat soilik, bertan bizi diren gizakiak ere bada, populazio bat da eta populazio horrek badu bere historia, oso historia zaharra; hainbesteraino ezen ez da Europa osoan hain mugarri argiak dituen euskal etnariarik bat ere. Gu, lorategi batean bezala, beste lore eta landare askoren artean, lore berezi bat gara, bizitzarako eskubidea daukaguna, besteak bezala. Ez dugu eskatzen besteak baino zainketa gehiago, baina bai eskatzen dugu besteak bezala tratatuak izatea; horixe dagokigu guri, are eta gehiago lore hori desagerrarazten ahalegindu direnean.

Guk ez dugu eskatzen inongo lorerik moztua izatea, bakar bakarrik eskatzen dugu gure lorea bizitzen uztea.”¹⁷

2. Apaltasuna

Mundu akademikoan eta ezagutzaren munduan askotan harrokeria da arriskurik behinena. JMB sartu zen ezagutzaren munduan ere arrisku hori egon zitekeen. Oreka mantentzea, oinak lurrean izatea, pertsona guztiak errespetuz tratatzea, klase mentalitatean ez erortzea ez da lantegi erraza.

Hasteko, gertaera esanguratsu bat aipatu behar da, bere amarekin izan zuena. 15 urte izango zituen eta ordurako aurre-seminarioko bi ikasturte batera egin zituen eta

¹⁶ Olaizola 2011.

¹⁷ Ugalde 1974:46.

harroxko edota euforiko etorri omen zen etxera, Ataunera. Amak horrela ikusita, etxe ondoko sagardira eraman eta sagarrondoei begira: “Ikusten al dituk sagar-arbola hauek? Zenbat eta beteagoak, orduan eta apalagoak. Hik ere halaxe behar duk!”

Bizitza osorako geratu omen zitzaion ariman amaren lezio hori, amaren beste lezio asko bezala, eta horretan ahalegindu zen bere bizitza luzean.

Esanguratsua da, baita ere, beste gertaera bat. JCBek, ezagun denez, interesa zuen euskal kulturarekiko eta 1931n dokumentatzen dela jada, 16 urte zituelarik, historia aurreko indusketa batzuk egitera joan omen zen, Karrantza aldera (Bizkaia). Gero-
ra, Itzeako jakintsuak onartuko zuen JMBekin eta Telesforo Aranzadirekin Bizkaiko Karrantzako kobazuloetan gehiago ikasi zuela Unibertsitateko geletan baino¹⁸. Antzinateko Historia ari zen ikasten orduan, Madrilgo Conplutensean. JCB-k noizbait aitortuko zuen: “Unibertsitatean irakasleen hamaika tabarra eta gogogabekeria jasan izan behar nituen... bitartean Barandiaranek oso ideia zehatzak ematen zizkigun me-
todo historiko-kulturalari buruz, Malinowski ikertzaileari buruz, gizaki primitiboen artean zegoen Jainkoaren ideari buruz, Durkheim edo Wundt egileen pentsamenduari buruz,... Alegia, Bizkaiko kobazulo paleolitiko batean, apaiz katoliko baten ahotik gai unibertsitario gehiago ateratzen zen Madrilgo geletatik baino.”¹⁹

Izan ere, JMBen katedra, beraren bizitza gehienez, horrelako lekuetan zegoen: kobazuloetan, trikuharrien bila egindako ibilaldietan, bere etxearen sukalde edo egon-
gelan. Handik zenbait urtetara, 1948an, JCB-k 34 urte zituelarik, Frantziako kongresu batean parte hartzeko ordaindu zion Barandiaranek. Frantziako historiaurreari buruz-
ko elkarte bateko idazkaria izateko proposatu zuen, gainera, JMBek. Ez zituen bere lagunak ahazten Ataungo jakintsu txikiak.

1963an, Joxemiel Barandiarani egin zitzaion lehenengo omenaldi haietako batean (hark 74 urte zituela, hil baino 28 urte lehenago), Julio Caro Baroja genuen antolatzaile nagusietako bat eta hitzaldi honen egilea: “Barandiaran y la conciencia colectiva del pueblo vasco”/ “Barandiaran eta Euskal populazioaren kontzientzia kolektiboa”. Hi-
tzaldi hartan Caro Barojak kontuan hartzen du nola bere maisua oso zorrotza izan den euskaldunen ahozko testigantzak jasotzerakoan, folklore, etnologia eta arkeologiarako oso lagungarria izan dela hori guztia²⁰. Horrelako omenaldiak ez zituen JMBek pro-
bestu egin zizkieten bidegabekeriak salatzeke (besteak beste, Gasteizko apaizgaitegian karguak kentzea, elizgizon batzuegandik mesfidantzak eta azpijoko batzuk jasatea, eta bar). Beti utzi zuen kezka hori sinesten zuen Jaungoikoaren eskuetan²¹.

18 Maraña 1995:27-28.

19 Testu honen egileak euskaratua, Caro Baroja 1972:236.

20 *Homenaje a D. José Miguel de Barandiaran. Una jornada cultural en compañía del maestro*. Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1966.

21 Velez de Mendizabal Etxabe 2015:35-36.

3. Oztopoak aukera bihurtu

Sutan jartzean probatzen da nolakoa den eltzea
Euskal esaera zaharra

Apala izateak ez dakar uzkur edo herabe izatea. Errealismoz, baina itxaropenez (Kristaua zen aldetik, itxaropena euskarri bat iraunkorra izan zen berarentzat), ozto-poak aukera bilakatzen ikasi zuen bere bizitzan zehar. Ataungo eskolan, Baliarrainen eta Gasteizko seminarioan hizkuntzaren oztopoarekin egin zuen topo. Euskaldun pe-toa izaki, herri euskaldun bateko semea, gaztelania erronka bilakatu zen. Seminarioko azterketa egiterakoan, aztertzaileak, Liborio Azpiatzuk, esan omen zion latin gehiago zekiela gaztelania baino, eta ikasi behar zuela. Horixe ikasiko zuela, maisutasunez bere lan zientifiko eta dibulgatibo askotan frogatu zuenez. Baina frantsesa, alemanera eta ingelesa ere ikasi zituen gerora²², hainbat bibliografia eta hainbat herrialdetako pertsonekin harremanak oztoporik gabe izateko.

Gasteizko apaizgaitegian egon, estudiatu, irakatsi eta bizi behar izatea (30 urtez izan zen), zenbait jakintza arlotan sakontzeko aukera bilakatu zen. Natur Zientziak oso gogoko zituen eta horretan sakondu zuen. Fisika irakaslea ere izan zen seminarioan. Maisu ikasketak ere burutu nahi izan zituen eta burutu ere (bi udatan), nahiz eta, diru gutxi zeukala tarteko, titulua ez zuen eskatu. Geologia eta Paleontologia ikasgaiak egin zituen, baita ere, Valentziako Unibertsitatean zegoen irakasle batekin gutun-bidezko hartu-eman batzuen bidez.

Filosofia eta Teologia ikasketak 9 urtetan egiten ziren eta berak 8 urtetan egin zituen, ondo egin ere. Horrekin soilik konforme ez eta erlijioen historiekiko jakin-mina sortu zitzaion. Horretan sakontzeko Alemaniara jo zuen, Leipzig-era, han Herrien Psikologiazko ikastaro bat egitera. Bertan Whilen Wundt irakaslea ezagutu zuen, eta hantxe sendotu zitzaion apaiz egin eta euskal kultura ikertzeko erabakia.

Lehenengorako ez, baina bigarrenerako ez zen giro 20ko hamarkadan zeren eta euskal gaiak ikertzea separatistatzat hartzen zen, baita zenbait eliza-girotan ere. Baina asmatu egin zuen JMBek interlokutoreak eta ikerketa-lagunak aurkitzen eta haien animoei esker jarraitu zuen aurreikusitako proiektuetan, gertuko beste batzuegandik kritikak jasotzen zituen arren.

Ezin da aipatu gabe utzi, Gerra Zibila piztean JMBek bizi izan zuen egoera. Gerrak, ohi denez, lanean harrapatu zuen JMB, Itziarren. Frentetatik ihesi, Iparraldera ailegatu zen itsasontziz. Denbora gutxirako egongo zela pentsatuta. Baina Gasteizen erregimen politiko eta sozial berrian ez zen ongi etorria izango, batek jarri ziolako salaketa bat (fitxa bat omen zegoen) JMBek sinpatia judeo-masoniko separatistak zeuzkalakoan. Kolpe latza JMBentzat. Barandiaran Fundazioak argitara eman duen *Abenduaren 31 Jose Miguel Barandiaranen bizitzan. Bere egunerokoetan idatzia* (1924-1988) delakoan argi ikusten da hainbat urtetan JMBek ez zuela ulertu zergatik zenbait eklesiastikok

22 Aizpurua 1999:35.

jokatu zuten hain modu bidegabean bere kontra, Gasteiza itzultzea arriskutsu oso bilakatzearaino. Baina egoera latz hori ere aukera bilakatu zuen JMBek, halaberharrez, baina gogotsu, etengabe eta lan apalez ekin zion lanari. Berarekin erakutsi ez zuten abegikortasuna berak beste hainbesterekin erakutsi zuen, Saran emandako urteetan, bisitari guztiak janari xume baina bero batekin sarituz²³.

Iparraldean emandako urteetan, bere apaiz zerbitzuak eskaintzeaz gain (Sarako parrokiari), hango euskara entzun, landu eta bereganatzeko aukera bilakatu ziren. Bistan da hainbat urte eman zituela (Gerra Zibiletik 1953ra, 17 urte) eta hango euskaldunekin harreman estua izan zuela; izan ere, erbesteratze hartan bere ikerketekin jarraitu, elkarriketak egiteari segida eman zion (inkesta etnologikoak, esan nahi baita).

Lehen euskal gizona (Txertoa, 1985) liburuan arestian aipatutako joerak antzematen ahal dira. Lapurterazko adizkiak erabiltzen ditu askotan: (*daukuzu, daukute, zaiku, dauz-kigute, zeuzkiguten* < diguzu, digute, zaigu, dizkigute, zizkiguten...), ez beti, hala ere. Grafia ere, Iparraldean erabiltzen dena izaten da, kontsonante osteko aspirazioa edo hasperena -h- hizkiarekin irudikatuz, edo Hegoaldean ahoskatzen ez den hasierako aspirazioa irudikatuz: *oinharria, ethnia, ihizi, baro, hibai*... Lexikoari dagokionez ere, jatorriz lapurterazkoak diren hitzei ematen die lehentasuna kasu askotan, nahiz eta gaur egun Euskara Batuak onartutakoak izan: *ehiera* (<errota), *aunitz*; *elizaño* (<elizatxo); *hazkurri* (<elikagai); *ator* (<alkandora); *ehortzi* (<urperatu)...



23 Velez de Mendizabal Etxabe 2015:22-24.

4. Lana: balore-harrobia

Egun luzea, lan luzea
Euskal esaera zaharra

Orain arte adierazitako balore guztiak azkeneko atal honetan kokatzen ahal ziren, baina euren berezitasunarengatik aurreneko partean kokatzea erabaki dut. Izan ere, bere ehun urtetik gorako bizitzaldian JMBek, nagusiki, lan egin zuen: oparo, luze, iraunkor, zorrotz eta sakon.

Lana bilakatu zen bere bertuteak edo baloreak lantzeko harrobia, edo laborategia. Gaztetatik izaten zuen jakin-minak indarra ematen zion, gauzak ikertzeko, proiektuak diseinatu eta praktikara eramateko, lankideez inguratzeko, haiekin batera proiektuak partekatu eta diseinatzeko, talde-lanetan laguntza oparo eta elkartasuna adierazteko. Proiektuetan ez zion bere buruari **errazkeriarik** barkatzen eta liburu zein erreferentzia bibliografikoetan baieztatzen zena ez zuen aitzakia bezala erabiltzen kanpo lana saihesteko. Alderantziz, JMBek zerbait egin bazuen bere bizitza osoan horixe izan zen: lehenengo eskutik, zapata edo botaren zola gastatu, denbora pertsonekin, informantekin xahutu eta kobazulo, Aralarreko landetan trikuharriak, eta bestelako monumentu megalitikoekin xerka ibili eta aztertu etengabe.

Esanguratsua da bere lehenengo ikerketa bere herriko Jentilbaratza deiturikoan. Ba omen zuen leku horren inguruko esaunden berri, “jentilak” han bizi izan zirela esaten zutenak. Bertara iketzera hurbildu eta, behaketa egin ostean, antzinako gaztelu baten hondakinak izan zitezkeelako hipotesia egin zuen. Pika txiki bat eta bi moneta ere aurkitu zituen²⁴. Gerora egindako beste ikerketen bidez, hipotesi hori demostratu zen. Baina esaunda eta elezaharren haritik tiraka, Aralarreko egingo zuen salto handik gutxira hainbat indusketa egitera eta Euskal Herriko arbaso zaharren arrastoen xerka.

Hori guztia, gainera, baliabideak alferrikeri eraldi barik, **austeritatez**, neurritasunez. Alemanian, Leipzig-en emandako hilabeteetan, bere gastuetarako oso diru gutxi zeukan eta jateko bertako merkatura joan eta fruta erosi eta hori bakarrik jan egiten omen zuen. Horrela, Atauna itzultzean inoiz baino argalago ikusi zuten beren senitartekoek, pixka bat asaldatuta²⁵. 1917an, Aralarren aurreneko indusketak eta ikerketetan (Eguren eta Aranzadirekin), Gipuzkoako Aldundiak emandako 750 pezetekin moldatu ziren, 20 egunez ostatua eta peoiak ordaintzeko... sekula ere ez (20 urtez aritu ziren Hiru Handi horiek elkarrekin, gerrara arte) dieta izateko²⁶.

Hainbat proiektutan sartua egonik ere, eta hainbat ikerlarirekin sareak osatuta izan arren²⁷, onartu egin zuen Nafarroako Unibertsitatean irakasle izateko gonbitea (bertako

²⁴ Aizpurua 1999:57-60.

²⁵ Aizpurua 1999:41.

²⁶ Aizpurua 1999:68.

²⁷ Julio Caro Baroja, Juan Garmendia Larrañaga, Antonio Tovar eta Koldo Mitxelena bezalako ikerlari handiekin, adibidez, Vélez de Mendizábal Azkarraga 2015.

Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedran) eta 1964tik 1978ra arte, Ataunen autobusa hartuta Iruñerako joan etorria egiten zuen zintzo-zintzo ostegun eta ostiralero²⁸, 74 urte zituenetik 90 urte bete arte, Euskal Etnologia irakastera. Hori ere probestu zuen lehenengo Etniker taldea sortzeko, auzolana eta talde-lanerako zuen joera berriro ere praktikara eramanez, eta eroapen handiz ikerlari (orduan) gazteak sustatuz eta gogoberotuz.

Atal hau nahi beste luzatzen den arren, JMBen lan-bizitza izugarri luze eta sakona baitzen, azkeneko alderdi bat nabarmentzera goaz: iraunkortasuna edo bere pertseberantzia. Erbesteralditik etortzean, eten egin ziren zenbait proiektu berriro martxan jartzea izan zen bere jarduna. *Eusko Folklore* aldizkaria berriro martxan jarri zuen 1955ean²⁹. 1978an, Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos berriro ere martxan jartzea lortu zuen beste batzuekin batera eta bera izendatu zuten etapa berriaren lehenengo lehendakaria.

Hau guztia, jakina, Kristau baloreetan sustraitutako pertsona izan zelako Barandiaran. Kultura desberdinetarako ukitze zuzenak, bestalde, ikuspegi diferenteak eskaini zizkion, eta gizakiaren aldeko apustu borobila egin zuen beti. Mina eta kaltea eragin ziotenak ere barkatzen ikasi zuen bere bizitzan zehar, kristau aginduari men eginez. Ez zen erreakzionario bat izan eta bere motibazioa ez zen ezezkorra sekula izan. Beti positiboa, maitasuna izan zen bere motibazioa. Kristaua izaki, Jainkoarekiko maitasuna, bere apaizgintzarekiko maitasuna zen bere itsasargian. Euskal semea izaki, euskal kultura eta hizkuntzarekiko maitasuna zen bere ipar orratza. Eta gizakia izaki, gizakiarekiko maitasuna eta errespetua zen bere lema. “Maitasuna maite izan zuen pertsona bezala gogora nazatela nahi nuke” esan ohi zuen. Zintzotasuna, zorrozatasuna, onestasuna, solidaritatea, egia, justizia, ondo egindako lana eta balore katea luze bat da Barandiaran mugatzen duena.

28 Beguiristáin 2000:9.

29 Lehenengo etapa 1921 eta 1935 urteen artekoa izan zen.

BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE, Iurgi (2000): "Enrique Eguren Bengoa, el tercer troglodita" in Euskonews & Media, 65 zbk., <http://www.euskonews.com/0065zbk/gaia6505es.html>
- AIZPURUA, Jon; AIZPURUA, Jexux, 1999, *Barandiaran*. Biografiak, Donostia, Elkarlanean.
- AIZPURUA, Jon; AIZPURUA, Jexux, 2000, *Joxe Migel Barandiaran (1889-1991)*. Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaritz.
- AROZAMENA, Ainhoa (2016): "Sociedad de Eusko Folklore" in *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, <http://www.euskomedia.org/aunamendi/110407>
- BARANDIARAN AMARIKA, Asier (2011): "On Joxemial Barandiaran eta herri-literatura" in *Euskonews*, 605. zenbakia: <http://www.euskonews.com/0605zbk/gaia60504eu.html>
- BARANDIARAN AYERBE, Joxemiel, 1928, *Mitología del pueblo vasco. II. Las piedras y los monumentos prehistóricos*. Laboratorio de Etnología de la Sociedad de Estudios Vascos, Asmoz ta Jakitez.
- , 1972-1984, *Obras Completas de José Miguel de Barandiaran*, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca.
- , 1985, *Lehen euskal gizona*, Txertoa, Donostia, 2ª edición, 1ª en 1972.
- , 2009, *José Miguel de Barandiaran : diario personal: (1936-1953), durante los años de su exilio en el País Vasco continental*, Ataun, Barandiaran Fundazioa.
- BARANDIARAN IRIZAR, Luis, 1983, *José Miguel de Barandiaran. Patriarca de la cultura vasca*, Bilbao, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca.
- BARANDIARAN IRIZAR, Luis (1995): *Cartas a José Miguel de Barandiaran (segunda etapa, 1952-1991)*. Kutxa Fundazioa, Donostia.
- BEGUIRISTÁIN, María Amor (ed.), 2000, *Curso monográfico de etnología vasca. José Miguel de Barandiaran*, San Sebastián, Colección Sara, nº 4.
- CARO BAROJA, Julio, 1963, *Barandiaran y la conciencia colectiva del pueblo vasco, en Homenaje a D. José Miguel de Barandiarán (Una jornada cultural en compañía del maestro)*, por "La Academia Errante", San Sebastián, Editorial Auñamendi, col. Auñamendi.
- , 1982, *Sobre historia y etnografía vasca*, San Sebastián, Estudios Vascos, TomoXI, Txertoa.
- DE PABLO, Santiago (Koord.)(2016): *100 Euskal Sinbolo. Identitate, Kultura, Abertzale-tasuna*. Editoriak Tecnos, Madril.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia (2016): "Pablo Pedro Astarloa y Aguirre" in *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, <http://www.euskomedia.org/aunamendi/15761#1>

- ETNIKER EUSKALERRIA, 1993, *Juegos infantiles en Vasconia*, Bilbao, Labayru Ikastegia.
- IBARGUTXI, F., (2013): “Juan Manuel Etxebarria Ayesta”, in <http://www.euskomedia.org/aunamendi/36379>
- KALTZAKORTA, Xabier (1992): “Bizkaiko herri-ipuak idatziak”, in *Euskera*, 37 libk. (2. aldia), 477-496.
- MANTEROLA, Ander; ARREGI, Gurutz (2003): Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran. 1889-1991. Barandiaran Fundazioa, Colección Sara, nº 1.
- NIETO MARTÍN, Santiago; GONZÁLEZ PÉREZ, Josefa (2002): *Los valores en la Literatura Infantil. Estudio empírico. Técnicas y procedimientos de análisis*. Aral Editores, Valladolid.
- OLAIZOLA, J.M. “Txikilu” (2011): *Jose Migel Barandiaran. Herria bibotzean zuen jakintsua*. Elkar, “Gure pertsonaiak” bilduma, Donostia.
- TOVAR, A., 1974, “Discurso inaugural del I Coloquio sobre Lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica”, [<http://www.cervantesvirtual.com/obra/discurso-inaugural-del-i-coloquio-sobre-lenguas-y-culturas-prerromanas-de-la-pennsula-ibrica-0>].
- VÉLEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA, Jose Mari (2015): “Juan Garmendia Larrañaga” in <http://www.euskomedia.org/aunamendi/61765>
- VELEZ DE MENDIZABAL ETXABE, Zuriñe (edit.) (2015): *Abenduaren 31 de Diciembre. Jose Migel Barandiaranen bizitza Bere egunerokoetan idatziak [1924-1988]*. Barandiaran Fundazioa, Nafarroako Gobernua.
- UGALDE, Martín, 1974, *Hablando con vascos*, Barcelona, Ariel.
- ZUAZO, Koldo, 2003, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, San Sebastian, Elkar.

Jose Miguel Barandiaran, euskal gizartea eta kultura

Ixone Fernandez de Labastida

Jose Miguel Barandiaran, la sociedad vasca y la cultura

Una de las facetas más estudiadas de José Miguel de Barandiaran es la de antropólogo. Sin embargo, con el paso del tiempo y a la luz del contexto histórico en el que desarrolló su obra, Barandiaran podría considerarse también como un activista social. Gracias a su particular metodología y a su objeto de estudio, este antropólogo contribuyó tanto a mitigar el discurso sobre la raza procedente de Europa así como a reconstruir los lazos sociales y el sentimiento de identidad cultural compartida en Euskal Herria.

Jose Miguel Barandiaran, la société basque et la culture

Une des caractéristiques les plus étudiées de José Miguel de Barandiaran est celle de l'anthropologue. Pourtant, au fil du temps et compte tenu du contexte historique dans lequel son œuvre a vu le jour, on pourrait également le considérer comme un activiste social. Grâce à sa méthodologie particulière et à son objet d'étude, l'anthropologue non seulement contribua à atténuer le discours sur la race venu d'Europe, mais également à reconstruire les liens sociaux et le sentiment d'identité culturelle partagé au Pays Basque.

Jose Miguel Barandiaran, the basque society and the culture

One of the most studied facets of José Miguel de Barandiaran is that of him as an anthropologist. However, with the passage of time and in light of the historical context in which he developed his work, Barandiaran could also be considered a social activist. Thanks to his particular methodology and its object of study, this anthropologist contributed not only to mitigation of the discourse on the race coming from Europe but also to the reconstruction of social ties and the feeling of shared cultural identity in Euskal Herria.

Nik 10 urte nituelarik Jose Miguel de Barandiaran izena entzun nuen lehendabiziko aldian ETB-ren programa batean. Urte hartan berarekin zenbait elkarrizketa emititu ziren bere heriotza izan zela eta. Berak eta Roge Blascok, “Doctor Livingston supongo” programarekin, antropologiaren munduan murgiltzera bultzatu ninduten. Ondorioz, Barandiaran, niretzat, bizitzan zehar denok ezagutzen dugun irudi ikoniko horietako bat izan da. Horregatik benetan harro sentitzen naiz ekintza oroigarri honetan parte hartzeaz. Nork esango zidan niri duela 25 urte!

Hala ere, aitortu behar dizuet ni ez naizela Jose Miguel Barandiaranen bizitza eta lanean pertsona ikasia. Horretan Ander Manterola, Josemartin Apalategi edo urrunegi joan gabe, hemengo mahaikideak ditugu. Baina Barandiaranen lana ezinbestekoa izan zen nire doktorego tesia justifikatzeko eta testuinguruan jartzeko. Honako honek Arabako mendi komunitatea eta bertan garatzen den abeltzain jarduera batetaz dihardu, zaldi abeltzaintzaz, alegia. Barandiaranek nire tesira egindako benetako ekarpena, ordea, askoz estrategikoagoa izan zen. Bere lanaren berrikuspenarekin “euskal kultura” kontzeptuaren barneko porrotaz ohartu nintzen. Baita nola lurralde honetako antropologia, euskal gizartea eta kultura errealitatearen ikuspen partziala transmitituz, haustura hori elikatuz joan den ere.

Konturatuko zinetenez, nik proposatzen dudana Jose Miguel de Barandiaran bera ulertzea da, baina biok partekatzen dugun disziplina berean oinarrituz: gizarte antropologia, alegia. Honekin batera “euskal kultura” kontzeptua argitzea eta pertsonaiaren giza ingurua ulertaraztea espero dut ere.

Oinarri bezala planteatzen dudana hipotesi orokorra, Barandiaranek garai hartako (XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren lehenengo erdialdean) gizartea eta euskal kultura ikasteaz gain, hura neurri handi batean eraikitzen ere lagundu zuela da.

Aurrekoari jarraikiz, hauek lirateke Jose Miguel Barandiaranek garaiko gizarteari egindako ekarpen nagusiak:

- Europatik zetorren jarrera arrazista leuntzen lagundu zuen. Garai hartan ohikoak ziren arrazan oinarritutako diskurtso zientifiko eta politikoak Europa testuinguruan, eta hauek ere eragina izan zuten Euskal Herriko garapen zientifikoan.
- Euskal gizartearen barneko harremanak berregiten eta talde nortasun sentimendua aktibatzen lagundu zuen, hau lortzeko momentu historiko zailenatariko batean (liberalismoaren ezarpena, modernizazioa, gerra zibila, sistema politiko diktatoriala, e.a.), hain zuzen ere.

Ondoren bi hipotesiak garatuko dira.

Lehenbiziko ekarpena:

Arazaren uztarriaren gainditzea Euskal Herriari buruzko diskurtsoan.

“Arrazaren uztarria” kontzeptuarekin zenbait zientziek arrazaren inguruan egin dituzten ikerketen muga teoriko eta epistemologikoari egin nahi diot erreferentzia. XVIII. mendeko hausnarketa genotipiko eta fenotipikoen ondorioz, arrazen sailkapenaren inguruko hipotesi ugari agertu ziren. Arthur de Gobineau (1816-1882) europar arrazismoaren sortzailea izan zela uste da munduko arrazen sailkapena hark proposatutako hiru kategoriei jarraituz egin delarik: kaukasikoa, negroidea eta mongoloidea. Ez dugu ahaztu behar ere Gobineau-ren teoriaren aburuz, arraza zuriak, bestekin konparatuta, adimen handiagoa eta moraltasun nahiz oreka emozional gehiago zeukala. Gainera arraza beltza animalia erreinutik hurbilago omen zegoen, moralitate txikia zuen eta emozionalki ezegonkorra zen. Laburbilduz, europar garapen zientifikoa (antropologia fisikoa barne) “arrazak” kontzeptuarekin oso lotuta zegoen garai hartan. Geroke gertaera historikoek demostratu zuten arrazari buruzko diskurtso hau gainditzeke egoteaz gain, interes politiko eta sozialak justifikatzeko ere balio izan zuela.

Euskal Herriko garapen zientifikoa ez zen gertatu Europako ideia hauetatik kanpo, kontrakoa pentsatzea inozentea izango litzateke. XIX-XX. mende hasierako euskal zientifiko gehienek (historiagileak, biologoak, antropologoak) Europan ikasi zuten, horregatik arrazari buruzko kezka hauek ezagutzen zituzten.

Gure esparrura begiraturaz, euskal antropologia zientzia bezala 1918. urtean sortu zen. Urte hartan Eusko Ikaskuntzaren lehenengo kongresua ospatu zen Oñatin. Ondorioz, 3 urte geroago (1921), Eusko Folklore Elkarteak sortu zen. Barandiaranen hitzetan:

“... con el fin de investigar el saber popular vasco y estudiar los problemas psicológicos y de historia cultural que susciten las informaciones y las encuestas que se abrirán sin duda en adelante” (Barandiaran, 1921:4).

Alabaina, Barandiaranek, baita beste antropologo askok ere (Aguirre Baztan, 1993; Apalategi, 1981, 1987; Azkona, 1987; del Valle, 1981; Fernandez de Labastida, 2013; Fernandez de Larrinoa, 2002; Zulaika, 1996), data hori baino lehenago euskal ohituraren, bizimoduaren, sinesmenaren eta hizkuntzaren inguruko idazkiak ekoiztu zirela azaltzen dute. Teoria ezberdinak daude “lehenbiziko berri etnografikoen garaia” edo “euskal antropologiaren sistematizazioaren aurrealdia” delakoaren sorrera garaia irriburuz. Edozein kasutan, denek onartzen dute 1918a baino lehenago, euskal kulturaren inguruko ahozko nahiz idatzizko deskripzioak bazirela.

Euskal antropologiaren aurrekari hauen produkzio testuingurua ezin da ahaztu. Are gehiago, testuinguru soziokulturalaren ondorioz lan horiek hartutako norabideak, geroago, Euskal Herriko antropologia diziplinak erakutsitako joera eta ikuspegia baldintzatu zuen baita ere (Zulaika, 1996).

Euskal kulturaren inguruko lehen berri etnografikoak XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendea izan ziren. Garaiko gizartearen egoera hurrengo bi fenomenoenga-

tik zegoen baldintzatuta: 1) Modernizazio prozesuaren ondorioz bizitako Erregimen Zaharraren krisialdia eta 2) Erromantizismo europarraren etorrera Euskal Herrira.

Hiru Gerra Karlista eta gero, XIX. mendea, zalantzarik gabe, erabakigarria izan zen Euskal Herriko errealtate soziopolitikorako. Horren ondorioz, liberalismoa guztiz ezarri zen, hiri testuinguruetan bereziki, honek aldaketa soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala eragin zuen. Erregimen Zaharraren krisialdi testuinguru horretan lan literarioak, ahozkoak barne (bertsolaritza, kontaerak,...), ugaritu egin ziren. Euskal nortasuna narratzea zeukaten helburu, eta horretarako tradizioak, herri kirolak, mendi zaletasuna, jaiak, eta euskara deskribatzen zituzten (Aguirre Baztan, 1993:223). Beraz, testuinguruak eraginda, Euskal kulturari buruzko deskripzio hauek guztiek zentzu folkloriko handia hartu zuten. Egile aipagarrien artean, Jose Ignacio Iztueta, Jose Maria Goizueta eta Jose Antonio Moguel ditugu. Haien lanek, “euskal gu”-a eraikitzen lagundu zuten, hura bizimodu tradizionalan finkatu zutelarik.

Bestalde, aipatutako testuinguru historikoaren bigarren elementuak, Erromantizismo europarrak ere, antropologiaren sistematizazio faseak hartutako norabidea guztiz baldintzatu zuen.

XVIII-XIX. mendeetan erromantizismoa delako mugimendu kultural, artistiko eta filosofikoa sortzen da European. Mugimendu honek ezeren aurretik sentimenduak jartzen zituen, eta emozioa sortzeko nahian herritarrei hurbildu zen ahozko produkzioa jasotzeko asmoarekin; ipuinak, kontaerak, esaerak eta poesia (bertsolaritza). Belen Altunaren aburuz:

"Erromantizismoaren ezaugarri funtsezkoa atzera begiratzea da, nazioaren iragana goraipatzeko pasartean bila aritzea... Helburu honetarako asmatu egin zen formularik aproposena, hizkuntza, tradizioa eta herri-espiritua modu koherentean elkarjotzea zen" (Altuna 2003:152).

Hau dela eta, paisaia herrikoia eta toki exotikoak interes puntuak izan ziren artista, bidaia eta pentsalari hauentzat. Kultura bitxiak, misterioak eta fantastikoak lehen-tasuna hartu zuten eta horrez gero, Euskal Herriak interesa piztu zuen garai hartako pentsatzaile europarren artean. Hala nola, Guillermo de Humboldt, Michel Francisque, Antoine D'Abbadie, Victor Hugo eta Wentworth Webster izan ziren Euskal Herria bisitatu zuten intelektualak.

Barandiaranek garaiko euskal gizartera egindako bigarren ekarpena zein izan zen ulertzeko, bada esaten ari garenaren inguruan argibide bat egiteko momentua. Euskal Herriko zonalde guztiak ez ziren Europako Erromantiko hauen interesekoak izan, soilik haien paisaia exotiko eta mistiko definizioarekin bat zetozenak: Atlantiar isurialdeko kostaldea eta mendi testuinguruak, alegia. Lurraldearen ikuspegi partzial honek, “euskal kultura” kontzeptuaren definizioan eragina izan zuen. Landuko dugun hurrengo hipotesiak, hain zuzen ere, kontzeptu honen hausturaz dihardu.

Aurreko arazoa oso argi agertzen zaigu Humboldt-en *Diario del Viaje Vasco* (1922 eta 1923) lanean. Intelektual erromantiko prusiar honek 1801. urtean Euskal Herrira

egindako bidaiaren ondorioa da lan hau eta gero, Telesforo de Aranzadik erdarara itzuli zuen. Humboldt euskal atlantiar isurialdean geratu zen eta hau kasualitatea ez zela izan argi geratzen da bere egunerokoan. Bertan jasotzen duen bezala, halaberharrez pare bat egun eman behar izan zituen Gasteizen, Gipuzkoako mendebaldetik Bizkaira igarotzerakoan. Bertako paisaiaren inguruko inpresioak honela jaso zituen:

“De Vitoria por Villa Real y Ochandiano. Hasta allí camino desagradable, región llana o colinas y montes pelados. Ochandiano el primer pueblo en el Señorío. Después de Ochandiano se hace la región mejor y poco después bellísima” (Humboldt 1922: 655).

Lurraldearen inguruko ikuspegian ez-ezik, euskal kulturaren bestelako elementu osagarrien definizioan ere izan zuen eragina erromantizismo europarrak. Zentzu honetan, bidaria “fisionomia nazional” (Humboldt, 1923:207) batez mintzatzen da eta hau, Euskal Herriko atlantiar isurialdeko baserri ingurunetan aurkitu zuen.

Erromantizismo europarrak Euskal Herrian izan zuen presentziaz mintzatzea ezin bestekoa egiten zaigu, gure hipotesiaren arabera, hark eragin handia izan baitzuen tokiko garapen zientifikoan ere. Konkretuki Telesforo Aranzadik, euskal antropologiaren sortzailea eta Barandiaranen aholkularia izan zena, erromantizismoaren ideia asko bere egin zituen (Humboldten lana erderara itzultzeko interesak erakusten duenez). Dударik gabe, Aranzadik zientifikoki garatutako Humboldten kontzepturik aipagarriena lehen aipatutako “euskal fisionomia nazionala”-rena izan zen, geroago antropologoak “euskal gizakia” bezala aztertuko zuena.

XIX. mendeko garapen hiritarraren eta industrialaren ondorioz, euskal burgesia liberala sortu zen. Fenomeno honen eragin kulturala baserri testuinguruetako folklореarekiko mesprezua izan zen. Testuinguru eta momentu horretan eman zen, hain zuzen ere, euskal arraza eta kulturaren jatorriaren inguruko ikasketen garapena, Aranzadi bezalako zientzialarien eskutik. Baina halako gaia, bestelako zientzialari europarrek ere izan zuten aztergai, hala nola, Retzius, Broca, Collignon eta D’Abbadie (Zulaika, 1996:51). Esan bezala, lan guzti hauek “fisionomia nazional”-a ideia-aren garapen zientifikoa suposatzen zuten.

Dударik gabe, Telesforo Aranzadiren ekoizpen zientifikoa eta konkretuki “euskal gizakiaren” inguruan egindako ikerketa oso garrantzitsua izan zen. Baina bere ikasle aipagarriena izan zena, Jose Miguel Barandiaran, laster ohartu zen nolabait planteamendu teoriko hauen mugaz. Ondorioz, “euskal arraza”-ren inguruko ikasketak “euskal kultura”-ren ikasketengatik ordezkatu zituen. Modernizazio prozesuaren ondorioz, euskal kultura delakoa galtze arriskuan zegoela uste zuen eta lehentasun handia hartu zuen berarentzat horren inguruko informazioa jasotzea. Helburu berri honen ondorioz bere ikergai antropologikoa birplanteatu zuen eta horrekin batera arrazari buruzko diskurtsoa arindu. Hau da, Barandiaranen benetako kezka mekanizismoak bizimodu tradizionalen sortutako galera izan zen eta horren ondorioz, bere lehentasuna bizimodu horiek etnografikoki jasotzea eta beste batzuek ere (Etniker taldeak, alegia) berdinean egitea izan zen (Barandiaran 1969: 55).

Ikergaiaren berformulazio honen ondorioz, “euskal arraza” delako kontzeptuak garrantzia galdu eta “euskal etnia” delakoagatik ordezkatu zuen Barandiaranek:

“Euskal Herria, etxe, senide edo herri talde baten tankeran, ageri zaiku. Talde horretan, ikusten denez, gizaki berezi batzuk sortzen dira edo eta beste lurraldeetan baino ugariago azaltzen dira- aurpegiz, buruz eta odolez, batez ere, nabari direnak- arteko senak sorteraziak: talde hori beraz azkazi (leinu, kasta) bat dugu. Azkazia ez ezik, **ethnia** (*nik azpimarratutakoa*) baita ere. Baditu Euskal Herriak bere lur eta eskualdeak; bere bizikerak- abeltzaintza, arrantza, nekazaritza, olagintza, e.a.-; bere elkargoak- etxe, auzo, herri-: bere ohikunde eta legeak; bere hizkuntza eta esaerak; gizabidean bere heziera darabilan eraen eta egitamua.

Heziera honek, ordea, ba ditu bere aurrezteak, lehen haroetan –bakoitza bere mailan- sortuak. Hauen muintan ikusten ditugu gaurkoaren erroak” (Barandiaran 1972: 9-10).

Aurreko definizioan ikusi daitekeenez, ezaugarri fisiko komun batzuk konpartitzeaz gain, euskaldunak, lehenik eta behin, komunitate kultural bat da, kultura, hizkuntza eta talde psikologia berbera konpartitzen duena (Bonte; Izard 1996: 258) eta horren ondorioz, euskal etnia bezala identifikatu daitekeena.

Beraz, kontua ez da Barandiaranek euskaldunok ezaugarri fisiko propioak edo konposaketa genetiko antzekoa zutela sinesten ez zuenik, baizik eta berarentzat, halako diskurtsoek eta analisek garrantzia zientifikoa galdu zutela. Antropologia eta testuinguru soziopolitikoaren arteko harremana ukatu gabe, posizionamendu honi esker, euskal antropologia ez zen diskurtso politiko arrazistentzako aitzakia izan Europako beste tokietan bezala. Guzti honengatik, Barandiaranek antropologia diziplina arrazaren uztarriaz libratzeaz gain, euskal gizarte osoa askatu zuen nolabait.

Bigarren ekarpena:

Erlazio sozialen berregitea eta nortasun partekatuaren erreaktibazioa.

Jose Miguel Barandiaran baino lehenago ez zen egon euskal kultura Euskal Herriko mediterranean isurialdean aztergai izan zuen zientzialaririk. Are gehiago, jakin-min etnografikoak zituzten arabarrek ere uste zuten ezinezkoa zela euskal kulturaren aztarnak euren eskualdean ikertzea. Baina esan bezala, Barandiaranek, haren galdetegi etnografikoari esker eta lurraldean zehar sortutako Etniker taldeei esker, lan handia egin zuen esparru honetan. Askotan ere, bertako etnografoen mundu ikuskeraren alaketarekin hasten zena.

Nire tesia prestatzen ari nintzenean Arabako etnografo aipagarri bati elkarrizketa egin nion. Hark, hurrengo pasadizoa kontatu zidan. Gasteizko apaiztegian ikasten zegoela Ataungo beste seminarista batekin zegoen gela berean eta berari esker Barandiaranekin kontaktuan jartzeko aukera izan zuen grina etnografiko handia baitzuen. Ba-

randiaranekin egin zituen lehenengo lanak arkeologikoak izan ziren batez ere, Arabako Mendialdean eta Trebiñon kokatuak. Baina Barandiaranek laster konbentzitu nahi izan zuen arkeologian ez-ezik etnografian ere aritzeko. Haren helburua bizirik ziharduten euskal ohituren bilaketa aktiboa sustatzea zen. Etnografo gazteak, ordea, ez zuen argi ikusi proposamena eta zera esan zion Barandiarani “*Aquí... (Arabian eta bereziki, Mendialdeko zonaldean eta Trebiñon) del mundo vasco ya no hay nada*”. Erantzun horrek asko harritu zuen Barandiaran eta, oker zegoela esanez, haren galdetegi etnografikoaren ale bat eman zion ahal zituen herri gehienetan pasatzeko esanez. Modu horretan hasi zen Jose Antonio Gonzalez Salazarren ikerketa etnografiko lan aberatsa.

Barandiaranek arruntzat jotzen zuen arkeologiatik etnografiarako igarotze hau. Arrunta ez-ezik, beharrezkoa ere omen zen. “Lehen euskal gizona” (1934) lanean argi eta garbi azaltzen du: Euskal Herria bere osotasunean ulertzeko ezinbestekoa da bi ezagutza esparruak uztartzea:

“Euskal Herria ezagutzeko, ordea, beronen lehen erroak eta geroztiko ibilaldiak ikasi beharra dugu. Gaurkoa lehengoetan baitago oinharritua, hauen irakaspenez eta indarrez dugu gugaino iritxia” (Barandiaran 1972: 9).

Barandiaranek berak, *Diario de José Miguel de Barandiaran*-en bertan, berak beza-la Gasteizko seminarioan ikasitako beste ikaskiderekin izandako topaketa zientifiko hauen berri ematen du ere. Hein handi batean, Barandiaran, euskal kulturarenganako zirrara etnografikoa zuten garaiko gazte askorentzat aholkulari eta pertsona aditua bilakatu zen. Gainera, erbestea eta gero, euskal kulturarekiko interesa zuten pertsonen mobilizazio lan hau areagotu zen, horren ondorioz, Etniker taldeak sortu ziren. Ander Manterolaren aburuz, Etniker kontzeptua, “es un término que significa investigación étnica. En nuestro caso es el estudio de la cultura tradicional del pueblo vasco y del proceso de su evolución contemporánea” (Manterola 1994: 124).

1953. urtean erbestetik itzuli zenean, Barandiaran berehala ohartu zen Euskal Herriko aldaketa soziokultural sakonaz. Arrazoi horregatik, tokiko ekoizpen antropologikoa bultzatu behar zela ulertu zuen. Bere ustez ezinbestekoa zen, lehenbailehen, eta modu sistematiko batean, galtzen ari ziren ohiturak eta bizimoduak jasotzea. Horrela Eusko Folklore elkarte, Aranzadi Zientzia Elkarte eta honen barruan Etnologia mintegien sorrera bultzatu zituen. Modu berean 1936. urtean hasitako “*Euskal Herriko Atlas Etnografikoa*” proiektua berreskuratu zen, gerra zibilagatik geldituta egon ondoren.

Atlasaren proiektuak euskal geografiatik sakabanatutako bizimoduak modu sistematiko batean (Barandiaranen galdetegia aplikatuz) jasotzea zuen helburu, hau, euskal kulturarentzat premiazkoa zen eta jende askoren konpromisoa behar zuen:

“Creemos urgente que se lleve a cabo una labor metódica mediante equipos bien formados en la técnica de la investigación etnográfica. Hay que organizar pues en Vasconia rebuscas sistemáticas en forma de sondeos que deberán ser realizadas en localidades situadas en todas las comarcas, hasta tener de cada una

de éstas una monografía que comprenda los temas fundamentales de la vida cultural de sus habitantes” (Etniker 2000: 52).

Helburu honetan inplikaturako etnografo guzti hauen mobilizazioek ezagutza areagotzea eta ekoizpen zientifikoa bultzatzea ez-ezik, Euskal Herriko leku desberdinetako pertsonen arteko harreman sozialak sendotzen lagundu zuen baita ere. Honen ondorioz, komunitate sentimendua eta elkar partekatutako nortasun sentimenduak areagotu ziren. Horrexegatik, hasieran izaera zientifikoa zuen proiektuak, laster gizarte eremuan ere ondorioak ekarri zituen.

Etniker talde probintziales zenbait bilera egiten zituzten urtean zehar, eta urtean behin, gutxienez, asanblada orokorra egiten zen aurreko talde guztiak elkartzeko. Etniker taldeen filosofia Barandiaranen galdetegia euren eskualdean aplikatzea zen eta ezagunagoak egiten ziren heinean, euskal geografia osoko herri ezberdinetako jende gehiago batzen zen proiektura. Aurrekoaz gain, ikerketa hauen emaitzak Euskal Atlas Etnografikoan publikatzearen ondorioz, ezagutzaren transferentzian laguntzeaz gain, euskal etniaren inguruko diskurtsoaren sozializazioan ere lagundu zuen.

Gure hipotesirako ezinbestekoa den beste kontu bat aipatu beharra dago ere. Atlasaren proiektuak, aurreko guztia sustatzeaz gainera, euskal antropologiak bere sorrera garaitik euskal kulturarekiko erakutsitako haustura gainditzen lagundu zuen baita ere. Muga hauek, euskal kultura modu erredukzionista batean definitzean datza, hura, euskal geografiaren zonalde zehatz batean kokatuz (atlantiar isurialdeko mendi zonaldeak) eta bizimodu eta produkzio ekonomiko zehatz batekin elkartuz (ardien artzaintza).

Barandiaranek ere, bere aurrekariak bezala, euskal etniaren jatorria atlantiar isurialdeko kobazulo eta dolmenetan bazegoela uste zuen. Aitzitik, ez zuen euskal kultura toki honetako bizimoduetara laburtu soilik. Lehenago jasotako euskal etniaren inguruko definizioan ikusi daitekeenez, Barandiaranek dio hau, euskal geografia osotik sakabanatutako toki eta bizimoduak osatzen dutela eta ez bakarrik Iparraldeko mendi zonaldeek.

Barandiaranen lanari esker, ordura arte euskal kulturaren bazterrak bezala definituak izan ziren zonalde geografikoak, Euskal Herriaren definizioan barneratuak izan ziren. Zentzu honetan, partekatutako nortasunaren suspertzea hein handi batean, atlantiar eta mediterranearen isurialdearen arteko harreman sozialak sustatuz lortu zen.

Ondorioak

Teresa del Valleren aburuz, euskal antropologiak euskal kulturaren inguruan ikuspegi estatikoa eta aldebakarrekoa zabaldu du, neurri handi batean, testuinguru historiko eta politikoaren eraginaren ondorioz. Bada ikuspegi antropologiko honen beste ezaugarri bat baita ere: herri kulturari emandako garrantzia (Del Valle, 1981: 131).

Erregimen Zaharreko krisiaren ondorioz Euskal Herrian bizi izandako eraldaketa soziopolitiko eta ekonomikoak, euskal kultura arriskuan jartzen zuela uste izan zuten

Jose Miguel Barandiaran bezalako antropologok. Egoera horren aurrean, haren egin-kizun gorena euskal gizarte tradizionalaren inguruko datuak modu sistematiko batean jasotzea izan zen, makinismoak hura ezabatu baino lehenago. Helburu horrekin, euskal kulturaren aztarnen bila ibili zen eta besteek ere berdin egitea bultzatu zuen, Euskal Herriko zenbait esparru geografikoetan: testuinguru herrikoietan, hain zuzen ere.

Del Vallek aipatzen duenez, aurrekoaren ondorioz errealitatearen klasifikazio di-kotomikoa sortu zen, Euskal Herria, herria Vs hiria, tradizionala Vs. modernoa, abel-tzaintza Vs. industrialia, e.a. bezalako kategorien bitartez sailkatuz. Honen ondorioz, Euskal Herriko errealitate geografiko eta sozialaren esparru bat (industrializatutako hiri testuinguruak) euskal kulturaren definiziotik at geratu zen. Baina aldi berean, Barandia-ranek, euskaldunaren definiziotik at sistematikoki geratu ziren beste errealitate batzuk barneratzea lortu zuen. Euskal Atlas Etnografikoa eta Etniker taldeen sorkuntzari esker, Barandiaranek Euskal Herriko mediterranear isurialdea euskal kulturaren diskurtsoan integratzea sustatu zuen, bi isurialdeen arteko harreman sozialak eta amankomuneko nortasun sentimendua sustatuz.

Barandiaranek ere, garaiko beste antropologo askok bezala, ezagutza etnografikoa aurre-historiarekin osatu zuen. Bera orientabide teoriko eta metodologiko zehatz baten jarraitzailea zen, zeinak kulturaren ikuspegi diakronikoan indar handia jartzen zuen. Aurrekoaren ondorioz, Barandiaranek baserrien, artzain etxolen eta monumentu megalitikoaren arteko harreman kulturala ezarri zuen. Hala eta guztiz ere, oinarri teoriko eta metodologiko bera jarraitzen zuten Europako eta Euskal Herriko beste zientzialari askorentzat ez bezala, arraza ez zen sekula izan berezko ikergai bat Barandiaranentzat. Modu honetan, eta inkontzienteki izan bazen ere, arrazaren inguruko diskurtsoak Euskal Herrian erakusten ari zuen indarra arintzen lagundu zuen Barandiaranek. Hark ere, euskal kulturaren inguruan sare sozialak eta ezagutza komunitateak sortzeko izan zuen gaitasuna kontutan izanik, ezinbestekoa izan zen praktika etnografikoa arrazaren inguruko teoritik aldentzea. Ostera, ondorioak latzak izan zitezkeen.

Aurreko guztiagatik, Barandiaranek antropologiaren esparruan egindako lanaren bitartez, garaiko euskal gizartera zenbait ekarpen garrantzitsu egin zituen ere. Alde batetik, Euskal Herria arrazaren zamatik askatu zuen eta bestaldetik, euskal nortasuna indartzen lagundu zuen euskal gizartearen deserrotze handia zegoen momentuan, hain zuzen ere.

BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE BAZTAN, Angel (1993): "La etnografía en el País Vasco" en Lluís Calvo i Calvo (ed.) *Aportacions a la història de L'Antropologia Catalana I Hispànica*, Generalitat de Catalunya, Barcelona.
- ALTUNA, Belen. (2003): *Euskaldun fededun*, Alberdania, Irun.
- APALATEGI, Joxemartin. (1981): "Introducción a la historia crítica de la producción oral vasca" en *Éthnica* n°17, Barcelona.
- ___, 1987a *Introducción a la historia oral a través de los kontuzabarrak de la comunidad gipuzkoana de Ataun*, Anthropos, Barcelona.
- ___, 1987b "Estado histórico-actual de la antropología y de la etnografía en Euskal Herria" en *Obitura* n°5. Diputación Foral de Álava, Gasteiz.
- ARANZADI, Telesforo de (1889): *El pueblo euskalduna*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- AZCONA, Jesus (1987): "La Antropología vasca hoy: estado de la cuestión", *Obitura* 5, 22-34.
- BARANDIARAN, Jose Miguel. (1921): *Anuario de Eusko Folklore*, Eusko-Ikaskuntza, Donostia.
- ___, (1969): "Bosquejo de un atlas etnográfico del pueblo vasco. Trabajos preliminares", *Etnología y tradiciones populares*, Diputación Provincial de Zaragoza, Zaragoza, 53-57
- ___, [1972 (1934)]: *Lehen euskal gizona*, Lur, Donostia
- BONTE, Pierre; IZARD, Michael. [1996 (1991)]: *Diccionario de etnología y antropología*, Akal, Barcelona.
- DEL VALLE, Teresa. (1981): "Visión general de la antropología vasca" en *Ethnica* n° 17. Barcelona.
- ETNIKER.(2000). *Atlas etnográfico de vasconia*. Instituto Labayru, Derio.
- FERNANDEZ DE LARRINOA, Kepa. (2002): "Antropologia soziokulturalaren nondik-norakoak Hego Euskal Herrian: euskal kultura iekrtzetik kultura-askotza ikertzerako bideak" en *XV Congreso de Estudios Vascos: zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*. Eusko-Ikaskuntza, Donostia.
- FERNANDEZ DE LABASTIDA, Ixone (2013): "Euskal antropologiaren arestiko garaia: euskal nortasunaren oinarriak eraikitzen", *Kobie*, 17, 55-70.
- GOIZUETA, José María de (1851): *Leyendas vascongadas*, F. García Padrós, Madrid.
- HUMBOLDT, Guillermo de (1922): "Diario del Viaje Vasco" en *Revista Internacional de los Estudios Vascos* n° 13. Eusko Ikaskuntza, Donostia.

—, (1923): “Diario del Viaje Vasco” en *Revista Internacional de los Estudios Vascos* n° 14. Eusko ikaskuntza, Donostia.

IZTUETA, Ignacio de (1824): *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia: beren soñu zar eta itz neurtu edo versoquin: baita berac ongui dantzatzeco iracaste edo instruccioac ere*. Ignacio Ramon Baroja, Donostia.

—, (1847): *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia : ceñetan jarritzen diraden arguiro beraren asieratic orain-arte dagozquion barri gogoangarriac / eguin eta zucendu cebana Juan Ignacio de Iztueta*, Ignacio Ramon Baroja, Donostia.

MANTEROLA, Ander (1994): “La escuela vasca de etnología” en Enrique Ayerbe (ed.) *La escuela vasca de etnología*. Ostoa, Lasarte.

ZULAIKA, Joseba (1996): *Del cromañon al carnaval*, Erein, Donostia.

Barandiaran eta Europa

Argitxu Camus Etchecopar

Barandiaran y Europa

José Miguel de Barandiaran fue un europeo convencido. Aprendió francés, alemán e inglés por su cuenta. Cuando era muy joven, se abrió a la ciencia europea. Estudió de los antropólogos, etnólogos y lingüistas más famosos de la época. Va a por la ciencia hasta la fuente misma para poder compararla con sus propias ideas. Y desde entonces veremos al ataundarra en numerosos cursos en diversas universidades de Europa, bien como estudiante y como profesor. El trabajo de Barandiaran le ha aportado mucho al etnología europea.

Barandiaran et l'Europe

José Miguel de Barandiaran était un européen convaincu. Il entreprit d'apprendre le français, l'allemand et l'anglais de son propre chef. Très jeune, il s'ouvrit à la science européenne. Il se forma auprès des plus grands anthropologues, ethnologues et linguistes européens de l'époque. Il alla à la recherche de la science à la source même, pour mieux la contraster avec ses propres idées. C'est donc ainsi que cet homme originaire d'Ataun se rendit à de nombreuses reprises dans des universités européennes, comme étudiant mais également comme professeur et conférencier. L'œuvre de Barandiaran apporta beaucoup à l'ethnologie européenne.

Barandiaran and Europe

José Miguel de Barandiaran was a convinced European. He learned French, German, and English on his own. When he was very young, he opened himself up to European science. He studied the most famous anthropologists, ethnologists, and linguists of the time. He went to the very sources of science in order to compare them to his own ideas. And since then, the Ataundarra took part in numerous courses in diverse universities throughout Europe, as a student and professor. The work of Barandiaran has contributed a great deal to European ethnology.

Sarrera

Europar konbentzitua genuen Jose Miguel Barandiaran. Europan gaindi gertatzen ziren gertakariak eta berritasunak interesatzen zuten. Europako beste herrialdeek eskaintzeko zutenaren hobeto ulertzeko euskara, gaztelera eta latinaz gain, frantsesa, alemana eta ingelesa ikasi zituen bere kabuz.

Barandiaran euskal etnografiaren esparruan eraman lanaren inguruan da ezagutua batik bat. Baina zientzia fisikak ere gustuko zituen eta gai hau urte anitzez Gasteizeko Seminarioan irakatsi zuen eta esperimentazio anitz eraman zituen ere alor honetan. Adibidez, 1920. hamarkadan radio-telefonari interesatu zitzaion Barandiaran eta 1924ean Saturrarán herriko Udako Seminarioan radio-telefonía estazio bat instalatu eta Londres, Cardiff eta Manchesterreko kontzertuak entzun ahal izan zituzten. Garai horretan Europako herri desberdinetara egin bidaiak baliatu zituen haririk gabeko telegrafia tresnak ezagutzeko. Hau dugu adibide bat, beste hainbaten artean, Barandiaranen Europarekiko irekidura erakusten duena.

Barandiaran, bere inguruko gizarteari interesatzen zitzaion. Lehen parte batean ikusiko dugu nola euskal gizartea hobeto ulertzeko eta lantzeko Europari eta munduari ireki zitzaion. Bere helburua betetzeko, erran nahi baita euskal gizarte tradizionala ikertzeko, beharrezkoak zituen tresnak ekarri zizkion europar zientziak.

Bigarren parte batean, kulturen ikerketarako europar mugimenduan aktiboki parte hartu zuela ikusiko dugu, hau da, euskal gizarte tradizionalaren ezagutzan. Gai hau, euskal gizarte tradizionalaren gaia, Europa eta mundu mailako esparru akademikora eraman zuen Barandiaranek.

Azkenik, ondorio gisa, Barandiaranen lanaren ikerketak eta bereziki bere egunerokoaren¹ irakurketak, orduko Europako gertakaria sozial eta politikoko garrantzitsu zontaiten berri izateko lehen mailako iturriak direla ikusiko dugu.

Europar zientziei irekitzea

Barandiarani, gazterik, etnia eta kulturen ikerketarako interesa sortu zitzaion. Luis de Barandiaran Irizarrek –Jose Miguel Barandiaranen ilobak– *José Miguel de Barandiaran: patriarca de la cultura vasca* obra biografikoan esplikatzen duenez, Barandiaranek erlijioen historian zuen interesak fenomeno erlijiosoa kultura eta garai ezberdinetan ikertzera eraman zuen. Horrela, “populu primitibo” delakoen ikerketari hurbildu zitzaion.²

1 Barandiaran, José Miguel (de). *Diario personal. Desde los primeros trabajos científicos, hasta el inicio del exilio (1917-1936)*. Volumen I. Colección Sara, Ataun: José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2005.

Barandiaran, José Miguel (de). *Diario personal. Durante los años de su exilio en el País Vasco Continental (1936-1953)* Volumen II. Colección Sara, Ataun: José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2009.

2 Barandiaran Irizar, Luis (de). *José Miguel de Barandiaran: Patriarca de la cultura vasca*. Donostia-San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S.A., 1976.

Sarreran erran dugun bezala, Barandiaran Europari ireki zitzaion eraman nahi ziotuen ikerketerako tresnak biltzeko orduan. Liburuek ekartzen ahal zutena baino urrugo joan behar zuela argi zuen Barandiaranek eta orduko espezialistenganik ikastea erabaki zuen. Europako herri ezberdinetera joan eta formatu zen beraz.

Lehen estudio bidaia 1913an egin zuen, ikasketak burutu baino lehen eta apeztu baino lehen, hots, Leipzig-eko unibertsitatean, Alemanian. Wilhem Wundt-en³ kurtso bat segitu zuen, herrien psikologiaz. Han ikasiak garrantzitsuak izan ziren ondotik eramanen zituen ikerketentzat, bai metodo aldetik baita ikerketa gaiaren aldetik: hor-tik goiti Barandiaranen interesa euskal gizarte tradizionalaren ezagutzan zentratuko baitzen. Bere hitzetan:

“El profesor Wilhem Wundt de la universidad de Leipzig me enseñó que las culturas no son adecuadamente inteligibles para quien no las vive.” (...) “Los comportamientos humanos no pueden ser comprendidos si no se los considera en el conjunto de su contexto social, lo cual uno puede lograr mediante investigación sistémica que abarque todo el sistema de elementos que forman su entorno cultural”.⁴

Lehen bidai horren ondotik, beste hainbat egin zituen. Hona lehen bidaia horren ondotik Barandiaranen egunerokoan irakurtzen ahal dena, bere jakin-minaren adierazle:

“Hay que volver a ellos pues no he tenido tiempo bastante. (...) Los problemas filosóficos me interesan pero urge la investigación etnográfica del pueblo vasco y la solución, si cabe, de los problemas planteados en ese campo”.⁵

Ondorioz, 1919an eta 1922an Alemaniara itzuli zen Barandiaran, Wilhem Wundt eta Fritz Grabner-ek⁶ eman kurtso batzuk segitzera, Leipzig eta Kolonia herrietara. Eta ondoko urteetan bide horretan segituko zuen, formatuz, kurtso bereziak segituz, Europako leku ezberdinetan.

Laster, errealtate etnologikoak eta gai arkeologikoak lotuak izaten ahal zirela oharturik, arkeologia esparruari interesatu zitzaion eta lehen miaketa arkeologikoak 1916an eraman zituen. *Ohitura* aldizkarian agertu artikulu batean⁷ arkeologiarentzat bere interesa nola piztu zen esplikatzen digu: bere ikerketa denboretan elkarriketatu jende askok trikuharriak jentilen hilerri zirelako ustea baitzuten.

Ikerketa etnografikoarentzat egin zuen bezala, bere lana arkeologian orduko espezialisten lanean eta irakaskuntzan oinarritu zen. “Prehistoriaren Aitasaindua” bezala

3 Wilhelm Wundt (1832-1920), psikologo eta filosofo alemandarra.

4 Barandiaran, José Miguel (de). “Prologo”, *Ohitura*, 1987 : 5. Zenbakia.

5 Barandiaran, 2005, *op.cit.*

6 Fritz Graebner (1877-1934), geografo eta etnologo alemandarra.

7 Barandiaran, « Prologo », *Ohitura*, *op.cit.*

kontsideratua zen Henri Breuil-enganik asko ikasi zuen, bere kurtsoak segitu baitzuten Parisen behin baino gehiagotan 1920 eta 1930 hamarkadetan eta bi gizonen harreman estua atxiki baitzuten anitz urtez. Pariseko Collège de France eta Institut de Paléontologie Humaine-etan irakasle zen Henri Breuil⁸. Nazioarteko prehistoria eta paleontologiako beste figura batekin harreman estua izan zuen ere Barandiaranek, hau da Hugo Obermaier⁹, apez alemandarra, Espainian eta berantago Suizan lan egin zuena.

Bere jakitatea osatzeko, Europako 12 herri ezberdinetako museoetara ikasketa bidaia antolatu zituen Barandiaranek. 1920. hamarkadan eraman zituen bidaia aipatuko ditugu hemen.¹⁰ 1922an, Alemaniako museoak ikertu zituen : Kolonia, Munich, Leipzig eta Berlin. 1924an, bi museo ikertu zituen hurbiletik, Musée des Antiquités Nationales Saint-Germain-en-Laye herrian (Paris-tik 20 kmtara dena) eta Musée de l'Homme, Paris-eko Trocaderon. 1929an Suizako eta Austriako museo eta intutuzio antropologikoetara joan zen.

Ikertzen eta aurkitzen zituen material asko Euskal Herriko mugetatik haratago hedatzen ahal zirela bazakien eta Europako beste herrialdeetan egiten ziren aurkikuntzekin konparaketak egiten zituen etengabe. Adibidez, 1938an Barandiaranek Ingalaterrara egin zuen bidaia batean, British Museum-era joan eta euskal prehistoriak Britainia Handiko eskualde ezberdinetako prehistoriarekin izan zetzakeen harreman puntuak aztertu zituen.

Europa guzian agertzen ziren lanei interesatzen zitzairen Barandiaran, eta ordu haietan ikerlarien artean arrakasta zuten metodologia orokorren berri bazuen ere. Europa osoko ikerlariekin harremanetan zen eta haiekin lan egiten zuen etengabe. Hara nola, bere “bizi popullarraren ikerketa etnografikoaren galdetegia” (*Cuestionario para una investigación etnográfica de la vida popular*) sortzeko unean, Frantzia eta Suizan erabiltzen ziren inkestetarik inspiratu zen. Fritz Graebner etnologo eta geologo alemandarraren kurtsoa segitu zuelarik Barandiaranek 1922an, metodo historiko-kulturalaren berri izan zuen.¹¹ Horrez gain, Bronislaw Malinowski-rekin ideiak partekatzeak aukera izan zuen, 1938an ezagutu baitzuten elgar Copenhaguen iragan zen Antropologia eta Etnologia Zientzien Nazioarteko Kongresuan. Malinowskik obserbazio parte hartzailearen metodoaz teorizatu zuen; eskola funtzionalistaren sortzailea izan zela kontsideratzen da.¹²

1921ean agertu *Anuario de Eusko-Folklore*-ren lehen zenbakian, “Breves instrucciones prácticas para el investigador folklorista” izendatu artikuluan, ikertzaile batek segitu beharreko oinarrizko arauak zoin diren zerrendatzen ditu, hara nola ikertzen den jendearen hizkuntza ikastea, galdezkatua den pertsonarengan ez eragina izatea, galderak ongi prestatzea ez daitezen abstraktoegi izan eta abar. Artikulua irakurtzean, egiten

8 Henri Breuil (1877-1961), apez zen.

9 Hugo Obermaier (1877-1961).

10 Erran gabe doa ondoko hamarkadetan beste estudio bidaia batzuk egin zituela ere.

11 Vienako etnologia eskolaren sortzailea da (eskola difusionista), Wilhelm Schmidt-ekin batean.

12 Bronislaw Malinowski (1884-1942) antropologo, etnologo eta soziologo poloniarra da.

dituen erreferentziak ikusirik, arau hauek idazteko orduan bere esperientzia pertsonalean baita beste ikerlarien esperientzian oinarritu dela ohar gaitezke.¹³

Ondorioz, erran genezake Europar zientziei ireki zitzaela Barandiaran, Europako espezialista anitzenganik ikasi zuela eta azken horiek leku handia izan zutela bere lanetan.

Europar zientziei Barandiaranen ekarpena

Horiek erranik, denbora guti barne, Barandiaran bere aldetik espezialista bilakatu zen, europar zientziei asko ekarriz.

1922an Holandako Tilburg herrian eman zuen mintzaldia atzerrian emandako lehena izan zen. Hor jorratu gaia, “La religion des anciens basques” zen (leheneko euskaldunen erlijioa), Etnologia Erlijiosoaren astea kari (Semaine d’Ethnologie Religieuse) eman zuena. Wilhelm Schmidt-ek izendaturik joan zen hara, Espainiako ordezkari bezala.

1922a baino lehen, Schmidt eta Barandiaranek ez zuten pertsonalki elgar ezagutzen baina bata bestearen lanen berri bazuten. Schmidt (1868-1954) alemana zen, hizkuntzalaria, etnologoa, erlijioen historialaria, eta Verbo-Divinoko misiolaria. *Anthropos* nazioarteko aldizkariaren zuzendaria zen. 1919an Barandiaranek Bilboko kongresu batean (Congreso de Bilbao de la Asociacion Española para el Progreso de las Ciencias) eman mintzaldia, “Contribución al estudio paletnológico del pueblo vasco: El Magismo”, Wilhelm Schmidten eskuetara heldu eta Barandiaranek eramaten zuen lana interesgarri iruditu zitzaion. Haien arteko harremana horrela hasi zen.

Tilburg-en eman mintzaldia zerrenda luze baten lehena izan zen, nazioarteko kongresu askotan parte hartu baitzuen ondotik, Europan gaindi. Adibide zorbait aipatzeko: 1938an, Zientzia Antropologikoen eta Etnologikoen Nazioarteko Kongresuan parte hartu zuen Copenhaguen “Sobre las antiguas religiones de los vascos” gaia jorratu zuela; 1948an Pariseko Congrès International d’Archéocivilisation-ean “Les symboles magiques au Pays Basque” gaia aurkeztu zuen.

Laster, Europako prestigiozko entitate zientifikoetan sartzeko gomitak heldu zitzaizkion. 1920. hamarkadan Pariseko Société d’Ethnographie-ko eta Londreseko Folklore Society-ko kide egin zen. 1930. hamarkadan Zientzia Misionologikaren Nazioarteko Institutuan sartu zen, Etnologia eta Antropologia Zientzien Nazioarteko Kongresuen Kontseilu Errektoretzako kide izendatu zuten (1953 urtea arte eramane zuen kargua)

13 BARANDIARAN, José Miguel. *Obras Completas de José Miguel de Barandiaran*. XXIV bolumen. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972-1984. Artikuluan sartzen dituen erreferentzia batzuk aipatuko ditugu segidan. Wilhem Schmidt-en erakaspena: sinemenen ikerketa eta horien agerpen kolektiboen azterketa ezinbestekoa da, baina horien agerpen indibidualak ahaztu gabe (*Congrès Semaine d’Ethnologie Religieuse*, 1914). P. Pinard-en erakaspena: datu etnografikoen interpretazio zientifikoaren egiteko orduan, printzipio bat kontutan hartu behar da; hau da elementu inbisibilearena edo unitate organikoa (*Anthropos, Revue internationale d’ethnologie*, 1910). Arnold Van Gennep-en (1873-1957) erakaspena leienden formakuntzan (*La formation des légendes*, 1917). Etnografo alemandar-frantses horrek Frantziako kultura popularrak ikertu zituen.

eta Genève-ko Commission Internationale des Arts et Traditions Populaires-eko kide izendatu zuten ere. Beste bat aipatzekotan (zerrenda osoa luzeegia bailitzateke), 1946an, Londreseko Royal Anthropological Institute-ean sartu zen.

Nazioarte mailako ikerlaria zen Barandiaran. Bere lanek ongi etorri beroa izaten zuten europar medio zientifikoetan, espezialistek txaloturik. Europa mailan bere lanak ezagupen handia baldin bazuen, etxean besterik zela erran genezake (1950. hamarkada arte iraunen zuena, Barandiaran erbestetik sartu zen arte). Barandiaranek oztopoak maiz pairatu behar izan zituen, bere Seminarioko lankide eta buruzagi batzueganik. Paradoxa bat bazela hor erran daiteke: ohoratua kanpoan eta bere lana ez ezagutua etxean.

1922ko udan European gaindi eraman zuen estudio bidaiatik sartu zelarik, hara Barandiaranek bere egunerokoan idatzi zuena: “Después de los viajes por los museos, tras los estudios en mis cursos de Alemania, vine muy animado para actuar en el seminario, mejor equipado que antes en mi juicio. Pero en Vitoria no pensaban utilizar con prisas mis servicios.”¹⁴

Gurruchaga jaunak, Vicario Jeneralak, 1924an, Eusko Ikaskuntzako bileretara joatea debekatu zion. “Porque dicen que un político de Bilbao ha dicho que esta sociedad es nacionalista. No será primero la religión que la política?”¹⁵ Ez ulertzeak baziren bere lanari buruz, liburuen irakurketatik baino haratago baitzoan eta euskal gizartea ikertzen baitzuen. Seminarioko errektoreak berak, Laspiur jaunak, bere lanari oztopoak emaiten zizkion maiz. Egoera hain zen desorosoa non 1925 urtean Barandiaranen zuzendari-tzapean zen etnologia laborategiak lekuz aldatu behar izan zuen, Seminariotik Eusko Ikaskuntzako eraikinera pasatuz (Escuela de Artes y Oficios de Vitoria).

Erbestean zela, Ameriketako etnologiako Katedra baten ardura hartzeko bi proposamen izan zituen¹⁶, bata Filipinetan Manilako Santo Tomas unibertsitatean (1937an) eta bestea Estatu Batuetako Columbia Unibertsitatean (1939an), New Yorken; proposamen horiek ez zituen onartu, Gasteizeko Seminaria itzultzea espero baitzuen. Baina ez zen horrelakorik gertatu, 17 urtez erbestean egon baitzen, 1953 urtea arte. Nahiz eta oztopoak ainitzak ziren, Barandiaranek bere lanean segitu zuen, materiala biltzen, inkestak egiten, miaketak antolatzen, bidaiatzen, ikerlariak formatzen.

Ander Manterolak bere *Vida y obra de José Miguel de Barandiaran* liburuan dion bezala: “El material recogido por Barandiaran es una de las contribuciones más importantes que desde Vasconia se ha aportado a la etnología europea.”¹⁷ Arrazoin du, Euskal Herriatik europar etnologiarik ekarri diona izugarria da.

14 Barandiaran, 2005, *op.cit.*

15 Barandiaran, 2005, *op.cit.*

16 Barandiaran erbestean zelarik, Manuel de Inchausti abokata euskal-filipinoak Barandiaran bere lan programa iparraldean aurreratzera animatu zuen, horretarako sos laguntzak ezarri (Manterola, *op.cit.*). Ez du gu probarik baina pentsatzen dugu Inchausti jauna izan daitekela bi katedra proposamen horien jatorria.

17 Manterola, Ander eta Gurutzi Arregi. *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran*. Colección Sara, Ataur: José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2003.

Barandiaran: Europako gertaera garrantzitsuen lekuko

Bere egunerokoan ongi agertzen den bezala, bere denborako gertaerak hurbiletik segitzen zituen Barandiaranek. Eta denbora haietako giroaren ezagutzeko lehen mailako iturria dugu bere eguneroko idatzi hori bizitako gertaerak zehaztasun handiarekin deskribatzen baititu.

XX. Mendean Europako gertaera politiko garrantzitsu zonbaiten lekuko izan zen Barandiaran: Errepublikaren Proklamazioa Espainian, Espainiako Gerla Zibila, Erbestea eta Bigarren Mundu Gerra. Adibide jakin batzuk aurkeztuko ditugu orai, Barandiaren lekukotasunaren balorea aitzina emateko.

1931n, Espainian, Errepublikaren Proklamazioaren ondotik giro tentsu bat ireki zen erlijiozko instituzioetan, Madrideko instituzio batzuek suteak pairatu baitzituzten. Gasteizen tiroak entzun ziren gau batez, Seminarioko irakasleak antolatu ziren, badaezpada, armak hartuz eta Barandiaranek eskuzko bomba batzuk prestatu zituen ere, zer gerta ere, eraso bat gertatzen bazen, beren buruen eta seminarioan bizi ziren 600 seminaristen defendatzeko. Horrelako lekukotasunak ainitz dira Barandiaren egunerokoan, gertakaeren deskripzio zorrotz batekin.¹⁸

Gerla Zibilaren ondorioz beste euskal errefuxiatu askok bezala Frantzia aldera ihes egin behar izan zuen Barandiaranek, 17 urtez han bizituz. Bere esperientzia zehatzki zein izan zen badakigu bere lekukotasun idatzi horri esker: zein lekutan izan zen, euskal errefuxiatuen egoera zailak aipatzen ditu (hara nola kanpamenduetan internatu zirelarik...). Beste gai interesgarri bat aipatzeko, Bigarren Mundu Gerraren eta okupazio alemanaren berri ematen digu Barandiaranek, zer giro zen esplikatzuz, pertsonalki alemanekin zer harreman mota izan zuen azalduz. Bere egunerokoan esplikatzeko duenez, bere ikerketa lanak egiteko unean, okupazio alemanak ez zion oztoporik eman eta bere lanetan segitzeko beharrezkoak zituen baimenak lortu zituen arazorik gabe.¹⁹

Bukatzeko Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa eskertu nahi nuke, Barandiaren hiltzearen 25. urteurrena kari mahai inguru honetan parte hartzeko aukera eman didalako. Esperientzia polita izan da eta pertsonalki asko ekarri dit: Jose Miguel Barandiaren obra ezagutzen nuen, baina ariketa honek Barandiaran gizonaz, bere ibilbide intelektualaz eta pertsonalaz gehiago ikasteko aukera eman dit eta hau eskertzekoa da.

Denak gomitatzen zaituztet bere biziak gehiago irakurtzera eta bereziki bere egunerokoen irakurtzera, benetan merexi baitute.

Milesker.

¹⁸ Barandiaran, 2005, *op.cit.*

¹⁹ *Idem.*

BIBLIOGRAFIA

- BARANDIARAN, José Miguel (de). *Diario personal. Desde los primeros trabajos científicos, hasta el inicio del exilio (1917-1936)*. Volumen I. Colección Sara, Ataun: José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2005.
- BARANDIARAN, José Miguel (de). *Diario personal. Durante los años de su exilio en el País Vasco Continental (1936-1953)* Volumen II. Colección Sara, Ataun: José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2009.
- BARANDIARAN, José Miguel. *Obras Completas de José Miguel de Barandiaran*. XXIV volumen. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972-1984.
- BARANDIARAN, José Miguel (de). “Prólogo”, *Obituro*, 1987: 5. zenbakia.
- BARANDIARAN IRIZAR, Luis (de). *José Miguel de Barandiaran: Patriarca de la cultura vasca*. Donostia-San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S.A, 1976.
- MANTEROLA, Ander eta Gurutzi ARREGI. *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran*. Colección Sara, Ataun: José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2003.
- VELEZ DE MENDIZABAL, José Mari. “José Miguel Barandiaran y Alava” in 14 conferencias Celedones de Oro 2014. Vitoria-Gasteiz: Institución Celedones de Oro, 2014.

Jose Miguel Barandiaran erbestean (1936-1953)

Xabier Irujo

Renoko William A. Douglass Center of Basque Studies-eko zuzendaria

Reno-Donostia, 2016ko azaroaren 17a (bideohitzaldiz)

Hamazazpi urteko erbestealdia pairatu zuen Jose Miguel Barandiaranek Iparraldean, 1936 eta 1941 bitarte Miarritzen eta Saran 1953 arte. Donibane Garaziko Citadellen kokaturiko haur kolonian dugu Jose Miguel 1937ko udan. Eusko Jaurlaritzak osatua eta Bingen Ametzagaren zuzendaritzapean, berogailurik, komunik eta kolonia osatzen zuten 500 haurrentzako oherik gabeko aterpea eta eskola zen hura. Santanderretik *Plouzbalaznec* ikatz-ontzian atera eta, bi egun geroago, ekainaren 24an, Iparraldeko kostan porturatu zen taldea. Hortik trenez iritsi ziren Donibane Garazira gabez. “Momentu latzak izan ziren haiek –gogoratzen zuen Mercedes Iribarrenek– mutikoak eta neskatoak hotzez dardarka, gosez, beldurturik, negarrez, eta gehienak gurasoen berririk gabe. Garazira ailegatu ginenean, faxisten publizitatea bide, ‘gorriak, gorriak’ esaten zigun jendeak leihoetatik euskaraz¹”.



1 Mercedes Iribarrenen testigantza. 1970ean egindako grabazio magnetofonikoa.

Bertako kolonian laguntzaile denboraldi bat pasa ondoren, Ametzaga Bartzelona aldera abiatu zen eta bertatik Parisko eta Ameriketako erbesteetara. Barandiaran aldiz, Miarritzen geratu zen eta hamar urtez ez zuten elkarrekin berri izan 1947ko ekainaren 23 arte: *Creo que su última carta estaba escrita en África, una de las escalas de su largo viajar durante estos diez años de exilio. Yo me quedé aquí, un poco a la aventura, y ahora sigo un poco más o menos el mismo tenor de vida que hacía cuando les dejé a Uds. en la Citadelle de tristes recuerdos*². Oroimen latzeko gotorleku horretan 500 haur horiek bizitokia izan zuten Francoren erregimenak haurrak Hegoaldera bueltatzeko presioak eragin arte. Izan ere, haur hauetako asko euren herrietara itzuli ziren bertan euren gurasoek pairatzen zuten errealitate latza partekatzeko, maiz gurasoen borondatearen kontra. 1940an okupazioa gertatu zenerako Iparraldeko eta Frantziako haurren erbestealdi horretako kolonia gehienak hustu zituen Jaurilaritzak³.

1936 eta 1937 Jaurilaritzako zuzentza ta gogo-lantze zaingoa kultura saileko zenbait kide ohi bildu ziren Parisko Marceau kaleko egoitzan eta 1938an lantalde bat sortu zuten proiektu kulturalak erbestetik martxan jartzeko asmoarekin. Kide hauen artean Jesús M. Leizaola justizia sailburua dugu, Bingen Ametzaga lehen hezkuntzako zuzendaria, Bonifacio Etxegarai Euskadiko Kultura Kontseiluko kidea, Francisco Basterretxea Eusko Ikaskuntzako kidea eta diputatu ohia, Manuel Irujo diputatu ohia eta Errepublikako ministro ohia, Julio Jauregi diputatu ohia eta Bartzelonako ordezkari izandakoa eta 1938an Iparraldean zegoen Jose Migel Barandiaran. 1936 eta 1937 bitarte Jaurilaritzako kultura sailak suspertzen saiatu zen hizkuntza eta kultura politika arloko zenbait erronkei eutsi zizkion erbestetik lantaldeak. Helburu nagusienetarikoa bat euskara suspertzea izan zen, izan ere, euskara Euskal Herriko hizkuntza ofiziala bilakatzeko ezinbesteko urratsa zen hura.

Ametzagaren iritzian euskal idazleak behar zituen oinarrizko ‘lehengaiak’ edo testuak behar zituzten egile hauek ekoiztu eta suspertu erbestetik, *idazlearen lankaik, bai, idazleak edonun eta inon baiño geiago gaurko Euskal Errian orrelako lankaiaik bear ditugulako. Yakiña, idazleak bere burua du lenbiziko lankaia, buru, antze-edo bear-bezelako adimen eta irudimenik gabe idazlea ez baita idazle izango. Orren ondoan, ordea, liburuek eskeintzen dioten laguntzaren bearra du. Ba dira liburuak –“Gero”, “Otoitz-Gaiak”, “Peru Abarka” ta orien antzekoak- bein eta berriz irakurri bear ditugunak euskeraren errai sakonak ezagun eta aren mami goxoaz yabetu nai ba’dugu. Baiña, ba dira ere, beste mota batetakoak, idazleak beti eskumenean euki bear ditunak: iztegiak. Aurrenik, itz guziak edo bil ditekezanak oro dauzkana; gero “Izenkide edo Zentzukide’ena (Diccionario de sinónimos) ain onuratsua izango litzakiguna, ta azkenik, “Amaikideen iztegia” (Diccionario de la rima) olerkariak erri guzietan ainbeste erabilli oi dutena. Ba-dira beste iztegi-motak ere, baiña lau oriek, beintzat, len-bai-len argitaratzea txit onuragarri izango litzakio gure euskerari. Gure izkuntzaren alde darabilgun burruka gorri ontan dauzkagun iskillu guziez baliatu bear. Arana-Goiri’k piztu*

2 Jose Miel Barandiaranek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna. Sara, 1947ko ekainak 23.

3 Erresuma Batuetako, Mexikoko eta Sobiet Batasuneko haurrak ez ziren hain azkar itzuli eta, kasu askotan, ez ziren inoiz itzuli.

*gogoaz batera, lankaiak bear ditugu. Antziñako ta oraingo idazle argiek -or dugu "Orixe"-aiek eskeintzen dizkigute ta Azkue'k iñork baiño geiago, noski. Baiña, oraiño ez dira aski. Euskeraren iztegi aundia, osoa, argitara bear da len-baiño-len, eta aren atzean beste bereziak. Oriek ditukegu idazlearen lankaiak, euskal idazleari bere oraingo lan gozogarratzean ain ederki lagun egin bearko diotenak*⁴.

Idazleen lankai hauen artean aldizkari zientifikoak aipatu zituen taldeak eta horri eutsiko zion nagusiki Barandiaranek Iparraldeko erbestean. Parisen bezala, eta Paris-ko taldearekin harremanetan noski, Iparraldean lantalde bat gorpuztu zen ere, "Los Caballeritos de San Juan de Luz" izenez ezagunak izango zirenak hain zuzen. Maiz Uztaritzeko *Intxausti-Baita* etxean bilduko ziren Joxe Mari Lasarte, Telesforo Monzon, Manuel Intxausti, Manuel Sota, Pierre Laffitte, Louis Dassance edota Joxe Migel Barandiaran erbestetik euskal kultur mugimendu bat piztu nahiak bultzatuta. Hala ere, 1940 eta 1944 bitarte Iparraldeko okupazioak gauzatutako giro kultural, ekonomiko eta politikoaren eraginez, ekintza gutxi bultzatu eta gauzatu ahal izan zituzten. Gerra amaitu ondoren ordea, 1946tik aurrera hasiko ziren lehenengo helburuak gorputzen.

1946an Ikuska (*Institut Basque de Recherches*) Euskal Ikerketarako Institutua sortu zuten. Julio Urkijok sortutako *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (RIEV) aldizkariaren 1936ko desagerpenari nahi izan zieten erantzuna eman. 1952 arte agertuko zen. Barandiaranen arabera, *la sección de Antropología de la Sociedad de Estudios Vascos (sociedad que ya no existe) han continuado trabajando durante estos años bajo mi dirección como lo hacían antes. Ahora ha empezado a publicar un boletín bimensual cuya finalidad es dar a conocer el resultado de las investigaciones de la vida popular vasca con vistas a la formación de una extensa compilación de materiales que sirvan de base al estudio científico del Pueblo Vasco. Este boletín se llama Ikuska (investigando, explorando). Habrá en él artículos en castellano y en francés*⁵. Eta, urte bat geroago, 1947an Sarako Bidartea etxean izandako bilera baten ostean osatu zen *Instituto Vasco de Extensión Cultural Gernika*. Ohorezko lehendakaria Monsinore Saint Pierre izan zen eta Jose Miguel Barandiaran lehendakari dugu. Lehendakari ordeak Louis Dassance, Telesforo Monzon eta Pierre Laffitte izan ziren eta Manuel Sota idazkari nagusia. Idazkari ordeak, Jon Bilbao eta Philippe Oihanburu, Ángel Lasarte diruzaina, eta bokalak Pierre Lhande, Monsinore Narbaitz, Manuel Intxausti, Javier Landaburu, M. Etxeberri Aintxart (Behe Pirinioetako diputatua), José Eizagirre, José Camiña, Javier Gortazar, Juan Zubiaga, Jauregiberri, Michel Labeguerie, Marc Legase, Adolfo Larrañaga, Domingo Epalza eta Teodoro Ermandorena.

Erakunde berriaren aldizkariak *Revista de Estudios Vascos Gernika* izena hartu zuen, gerora *Euzko Jakintza* izango zena. Aldizkari berriaren lehenengo alea plazaratu bezain azkar, Barandiaranek idatzi zien Ameriketako zenbait herrialdeetan erbesteturik ziren euskal egileei herrialde hauetan Iparraldean plazaratu berriko *Gernika* aldizkariarekin laguntzearren⁶. Arrakasta handiko eginkizuna izan zen hura. Aldizkariaren lehen zen-

4 "Idazlearen lankaiak", *Euzko Deya*, Mexiko, abuztua, 1955.

5 Jose Miguel Barandiaranek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna. Saran, 1947ko ekainak 23.

6 Jose Miguel Barandiaranek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna. Sara, 1947ko ekainak 23.

bakia agortu zen eta 400 aleko bigarren edizio bat ere kaleratu zuen Institutuak, *de los cuales quince serán numerados y firmados por el director, señor Barandiaran*⁷.

Lehen urtean *Gernika Euzko Jakintza* izenburupean argitaratu zen. 1948 eta gero *Eusko Ikaskuntza Lagunartea – Société Internationale des Etudes Basques* osatu zen eta al-dizkaria *Eusko Jakintza* gisa argitaratuko zen. Institutuaren eta aldizkariaren helburuak Barandiaranek berak azaldu zituen erbesteko zenbait lagunei idatzitako gutunetan. Amerikar erbesteko punta ezberdinetan lanean ari ziren egile guztien lanak koordinatzea eta bateratzea zen helburu nagusien arteko bat eta horretarako *Jakin Bilerak* edo lantaldeak antolatu zituzten, egile guzti hauek ekintza eta helburu baten inguruan bat ekartzeko nahiarekin:

Gernika, este Instituto desea establecer contacto con los vascos de América, como lo hiciera en otro tiempo aquella institución que se llamó “Sociedad Vascongada de Amigos del País”. Para ello trata de formar en todas las repúblicas americanas “Juntas Culturales Vascas” (Eusko Jakin Bilerak), cuya finalidad es recoger información sobre:

1. *Huellas de la influencia vasca en la cultura americana.*
2. *Densidad de la población vasca en cada república:*
 - a) *Vascos nacidos en Euzkadi*
 - b) *Americanos de prosapia vasca*
3. *Hombres de origen vasco que se hayan distinguido en las ciencias, letras, artes, política y milicia.*
4. *Publicar toda información relativa a los puntos precedentes en la revista “Gernika”⁸.*

Eusko Ikaskuntza Lagunartek Iparraldean bultzaturiko *Eusko Jakin Bilerak* hauek diasporako berrogeita hamar euskal egile lotzea lortu zuen. Barandiaranen hitzetan, *ya estará Ud. enterado de que me cargué con la dirección de la revista Eusko Jakintza y, como tal director, me es grato manifestarle mi agradecimiento por el gran servicio que viene Ud. prestando a esta publicación y a las otras obras de cultura en que estamos empeñados. Alrededor de esta revista hemos logrado reunir un numeroso grupo de colaboradores -más de cincuenta- del que forman parte los mejores vascólogos del mundo. Esperamos, pues, que nuestra publicación contribuya a imprimir sólida orientación científica a los estudios vascos ¿No podría Ud. enviarme algún trabajo de su investigación personal sobre los vascos en el Uruguay? (...) En un mundo que nos niega la constitución de una universidad vasca, la revista Eusko Jakintza aspira a ser nuestro órgano de cultura superior. Por lo demás, una prueba de que la empresa responde bien a las exigencias del ambiente científico es que más de un centenar de revistas de todos los países mantienen intercambio regular con la nuestra (...) ¿Me permite Ud. que le ponga en la revista Eusko Jakintza y en Ikuska que es Ud. nuestro representante y corresponsal en el Uruguay?*⁹

7 “Instituto Gernika”, *Euzko Deya*, XII, 261. zbka., 3. orr., Paris, apirilak 30, 1947.

8 Jose Miel Barandiaranek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna. Sara, 1947ko ekainak 23.

9 Jose Miel Barandiaranek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna. Sara, 1949ko ekainak 9.

Barandiaranen erbestealdiaren azken urteetan 1948ko eta 1954ko Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusiak antolatuko ziren Iparraldean, azken hau Barandiaran Hegoaldera itzuli ondoren. 1948ko irailaren 12 eta 19 bitarte bildu zen Miarritzen Eusko Ikaskuntzen VII. Biltzar Nagusia. Aurreko seiak ez bezala, Jaurlaritzaren parte hartze nabarmenarekin batera, *Sociedad Internacional de Estudios Vascos Gernika* erakundeak antolatu zuen VII. Ondoko hauek ziren elkartearen helmuga nagusiak:

1. Euskal ikasleriarengan euskal kulturarekiko arreta eta jakin-mina sorraraztea.
2. Donibane Lohitzuneko *Sociedad Internacional de Estudios Vascos Gernika* elkarteak hartzen zituen erabakiei jarraiki lan egin.
3. Unibertsitate ezberdinetan euskal kulturarengan ardura agertzen zuten ikertzaile eta ikasle taldeen eraketa sustatu.
4. Elkaratearen kideen artean euskal kulturaren inguruko jakintzak zabaltzearen, biltzarrek, jardunaldiak eta ikasketak eragin.
5. Euskal kulturaren arloan lan egiten zuten beste erakundeekin harremanak sendotu.
6. Munduan zehar sakabanaturik zeuden euskal elkarteekin harremanak sendotu.
7. Euskal kulturaren zabalkundearen alde lan egin, bai Euskal Herrian zein atzerrian.
8. *Gernika* elkartearekin unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen lankidetzari indartu¹⁰.

Asmo hauei jarriki, Eusko Ikaskuntzen VII. Biltzar Nagusiaren egitasmoak garbi azaltzen zituen bilkuraren asmo eta xede nagusiak:

Eusko Ikaskuntza Lagunartea erresuma guzietako euzko jakintsunen arteko batasunak erabaki du Miarritzen eginen duela VII-garren Biltzar-nausia, aurtengo buruilaren 12-tik 19-eraino.

Ondar urthe hautan jakintsunek zernahi lan erabili dute eta bazterrak ere bertzelakatu dira: Eskual-Herriari buruz nork zer daki xuxen segur denik? Iduritu zaiku bada behar dela baitezpada Biltzar bat bil-arazi, jakiteko eskualariak eta eskualzaleek nun zer aurkitu duten. Gisa hortan ikusiko duguhobeki zer egin den ikertzaleen artean, zertaratu den eskual jakintza, nola diren bizi Eskualdunak eta zer derabilaten gogoan, sort-herrian bezala atzerrietan ere, eta laguntzen abalko ditugu hein batean bai bidearen ezagutzen, bai ethorkizunaren aphailatzen.

Bertze agerki batean xekiago erranen dugu zer noiz nola antolatuko dugun Biltzarreko bazter-ikusketa, biltzartiarreari eman errextasun, eta bertze.

Eusko-Ikaskuntza Lagunartea (Société Internationale d'Etudes Basques) dei huntan bersatzen zaiote Eskualdun ohiduren atxikimendua duteneri eta bereziki aipatu ikasgaietan zerbait dakiteneri: othoi jakin-araz dezagutela Biltzarra onbartzten dutela eta

¹⁰ Euzko Izpar Banatzea, Paris, uztailak 15, 1948.

beren lanak igor erran egunetako: ahalaz berak ethor bekizkigu Miarritzerat. Lan zerbait gogo daukuten guziek, aipatu hamalan sailetarik bat edo bertzeri buruz, hel-eraz dezatela othoi lehen-bai-lehen beren idazkiaren titulua, 5, plce Louis Pasteur, Bayonne.
“Gernika”-ko lagunek ez dute duda izpirik Eskualdun eta Eskualzale guziek nahiko dutela Biltzar-nausi hau sustatu eta gisa hortan esku eman euzko-jakiteari, gero-ta joriago ager dadien herrialde guzietan¹¹.

1948ko biltzarra Lurra, Gizakia eta Kultura arloetan banatuta, Barandiaran Gizakia arloaren baitan “Etnologia eta historiaurrea” sailaz edo panelaz arduratu zen. Harrakasta itzela izan zuen 1948ko biltzar nagusiak eta ekintzak Iparraldean osatutako lantaldearen proiektuak suspertu zituen. Urte bat geroago, 1949ko udaberrian, euskararen eguna Iparraldean eta munduko eusko etxe guztietan ospatzea proposatu zien Manuel Sotak Joxe Mari Lasarteri, Telesforo Monzoni eta Manuel Intxaustiri Uztaritxeko *Intxausti-Baita* etxean. Bigarren bilera batean Pierre Laffitte, Louis Dassance eta *Euskaltzaleen Biltzarra* erakundeko lehendakaria gonbidatu zituzten azken bi hauen iritzia jasotzeko. Ideia martxan jartzea erabaki zen eta 1949ko abenduaren 3an, Xabier deunaren egunean, ospatu zen Euskara Eguna Ameriketako punta guztietan¹².

Zenbait lan idatzi zituen ere Barandiaranek erbestealdi honetan, besteak beste, *Antropología de la población vasca* 1947an, *Cuestionario para un estudio etnográfico del pueblo Vasco* 1949an eta, behin Hegoaldean, *El hombre prehistórico en el país vasco* argitalpena gertatu zen Ekin argitaletxearekin Buenos Airesen eta *Aspectos sociológicos de la población del Pirineo Vasco* kaleratu zuen Baionan 1953 eta 1957 bitarte.

Oihartzun handia izan zuten *Sociedad Internacional de Estudios Vascos Gernika* eta Ikuskaren lanek. Aipaturiko ekintza akademiko eta kultural guzti hauek koordinatzeko eta antolatzen laguntzeko erbesteko Jaurlaritzako kultura saila osatu nahi izan zuen Jose Antonio Agirrek 1955ean Donibane Lohizunen. Iparraldean kokaturiko Jaurlaritzako Kultur Etxearen proiektua proposatu zien Bingen Ametzagari eta Jokin Zaitegiri 1955eko azaroan Lehendakariak. Euskarak eta euskal kulturak bizi zuen egoerari aurre egiteko bost bat laguneko lan taldea osatzea zuen Jaurlaritzak helburu. *Euzko Gogo*a argitaratzea eta euskaraz zein euskarari buruzko zenbait artikulu, jardunaldi eta liburu kaleratzea izango zen erakundearen oinarritzko zeregina. 1949ko krisialdiak zeharo murriztu zituen ordea Jaurlaritzaren xedeak eta gauzatu gabe geratu zen Parisko ordezkartzako jarraibideen ildo nagusian koka dezakegun kultur etxearen hasierako proiektu hau. Hala ere, Euskal Kulturaren Alde taldea osatu zen Iparraldean Jokin Zaitegiren sorospenarekin.

Fruitutsua dugu Parisen 1938an Jaurlaritzaren ordezkartzan eta Barandiaranekin Iparraldean lan egin zuten erbesteratutako lagun guzti horien lana. 1943an osatu zen Montevideon Errepublikako Unibertsitatean Eusko Ikaskuntza Mintegia, Ametzagaren

¹¹ Ibid.

¹² Gerora Iparraldean abenduaren 18an ospatzea planteatu zuten zenbait udalek, abenduaren 3an gerrako elbarrientzako eta birikeriaren kontrako kanpainak ospatzen baitziren.

ereduari jarraiki, 1948ko urriaren 26an osatu zuen Bordeleko Unibertsitateko letretako fakultatean euskara eta euskal literaturako katedra René Lafon filologiako irakasleak eta 1967an Bill Douglasssek Renoko Euskal Programa osatu ostean, Jon Bilbao ekarri zuen Nevadara bertan lan egiteko. Jon Bilbaok Barandiaranekin lan egindako urte guzti horien kutsua ekarri zuen Renora. Izan ere, Barandiaran dugu 1936ko erbestealdi luze horren lehenengo urte hauetan eragile eta sustatzaile sutsua. Etnografo eta arkeologo izan zen bai, baina abertzale fina, euskaltzale zintzoa eta jakitun handia dugu ere Barandiaran.

BIBLIOGRAFIA

- AIZPURUA BARANDIARAN, Jexux; AIZPURUA, Jon, *Joxe Migel Barandiaran (1898-1991)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2000.
- BARANDIARAN, Jose Miguel, *Selected writings of Jose Miguel de Barandiaran: Basque prehistory and ethnography*, University of Nevada, Center for Basque Studies / University of Nevada, Reno, 2007.
- BARANDIARAN, Jose Miguel, *Diccionario de mitología vasca*, Txertoa, Donostia, 1984.
- BARANDIARAN, Jose Miguel, *El mundo en la mente popular vasca; creencias, cuentos y leyendas*, Auñamendi, Donostia, 1960.
- BARANDIARAN, Jose Miguel, *El hombre prehistórico en el país vasco*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1953.
- BARANDIARAN, Luis, *Cartas a Jose Miguel de Barandiaran*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones (RSBAP), Donostia, 1989-1995.
- BARANDIARAN, Luis, *Jose Miguel de Barandiaran, patriarca de la cultura vasca*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, Donostia, 1976.
- Barandiarango Jose Migel maisuari omenaldia = Homenaje a D. Jose Miguel de Barandiaran*, Sociedad de Ciencias Azanzadi / Aranzadi Zientzia Elkartea, Donsotia, 1990.
- IRUJO, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955). Eusko Jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian*, Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati, 2005.
- IRUJO, Xabier, “Erbesteko Eusko Jaurlaritzak Parisko Marceau kaleko egoitzan finkatutako politika kulturalako ildo nagusiak (1938-1940)”, *José Antonio Agirre, proiektu kultural bat = José Antonio Agirre, un proyecto cultural* / Edurne Muñoz (Ed.), 2007, 77-90 orr.
- Jose Miguel Barandiaran-eri omenaldia: Oñati, 4-11-1979*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1979.

Barandiaran: zientifikoa eta fedea

Gaspar Martinez Fernandez de Larrinoa

Barandiaran: la ciencia y la fe

Barandiaran ante todo fue sacerdote. Además, también era arqueólogo, antropólogo, etnólogo, historiador... es decir, un hombre de ciencia. En cambio, supo compatibilizar la religión y la ciencia. Un ejercicio difícil, teniendo en cuenta los estrictos postulados de la iglesia católica de la época. Puesto que los estudios realizados para esclarecer sus dudas estaban basados en trabajos de investigación de personas de fe, Barandiaran para lograr la tranquilidad absoluta, quiso poner sus ideas al nivel de otros investigadores de diferentes creencias.

Barandiaran: le scientifique et la foi

Barandiaran, avant toute chose, était un prêtre. En outre, il fut archéologue, anthropologue, ethnologue, historien... bref, un homme de science. Il réussit à concilier la religion et la science. Un exercice difficile, au vu des postulats contraignants de l'Eglise catholique de l'époque. Etant donné que les études que Barandiaran entreprit pour clarifier ses doutes se basaient sur des travaux de recherche menées parmi des personnes de foi, et dans le but d'atteindre la paix absolue, il contrasta ses idées avec d'autres chercheurs qui étudiaient différentes croyances.

Barandiaran: Science and faith

Barandiaran was primarily a priest. In addition, he was also an archaeologist, anthropologist, ethnologist, historian...that is, a man of science. Even so, he was able to reconcile religion and science. A difficult exercise, considering the strict postulates of the Catholic Church of the time. Even though the studies carried out to clarify his doubts were based on research by people of faith, Barandiaran, in order to achieve absolute tranquility, wanted to place his ideas at the same level as other researchers of different beliefs.

Sarrera

Lan labur honen bitartez azaltzen saiatuko naizena aurreratu dezadan: Jose Miguel Barandiaran sinestun sakona izan zen, eta bere apaiz izaeratik bizitzari eta historiari kulturak, Euskal Herrikoak, ematen zion zentzuaren erantzuna ezagutzeko gogoeta lan sakona egin zuen. Bere hausnarketaren bidez oso lan zientifiko garrantzitsua burutu zuen. Haren ustez, gainera, hori ez zegoen kontraesanean fedearekin, fedea berak aldarrikatutako Egiara iristeko bide ezberdin eta osagarria baitzen: “Zientziaren bidez aurkitutako Egia erlijioak irrikatzen duen berbera da. Erlijioaren bidez aitortzen den Egia, Zientziak giza baliabideen bitartez ikertzen duena da; biek sustrai berberak dituzte eta biek osatzen dute giza-jakintza”.¹

Gasteizko apaiztegia: 1906-1936

“On Jose Miguel Barandiaran Errektore-ordea ezohizko gizona zen, baita Apaiztegi bateko nagusi bezala ere. Paleontologia eta Historiaurreko irakasle gisa ezin zitekeen hoberik egon. Fisika irakasle ona zen (Kimikako kontzeptu batzuk soilik eman zizkigun) eta suposatzen dut baita Geologiakoa ere. Baina bere irakaskuntza ez zuen klaseetara mugatzen: bera izan zen ekintza intelektual estra-akademiko guztien bultzatzailea; hauek jarraian hitz egingo dugun “Gymnasium” eta aurreragorako utziko dugun “Idearium” aldizkarietan euren bidea topatu zuten. Luxu bat zen On Jose Miguel Apaiztegian izatea”.²

Dirudienez, On Jose Miguel umetatik izan zen oso pertsona azkarra, arteta, behatzailea eta zorrotza.³ Ez da harritzekoa, beraz, hamalau urterekin Apaiztegian apaiz izateko sartzeko erabakia ondo hausnartutako hautu pertsonala izatea. Ezagutzaren mundurako sarrera izan zen erabaki hura sarrera - zentzurik zabal eta sakonenean-, eta bertatik zeharo nekaezin ibiliko zen On Jose Miguel, bere azken egunera arte. Baiezta daiteke ibili horretan, Gasteizko Apaiztegiko ikasle, irakasle eta nagusi garaietan eraiki, gorpuztu eta zehaztu zela bere programa intelektual, bere bizitzari intimoki lotua eta bereizezina.

On Jose Miguel zientziarentzat modu natural batean eginda zegoela adierazten duten zantzu ugari daude, izan ere, behaketa, xehetasunei ipintzen zien arreta eta datuen bilketa zorrotza berezkoak baitziren beragan. Horregatik normala da irakurtzen eta jasotzen zituen iritzietan oinarrituta jakin-min hori gaztetatik ase nahi izatea. Hamasei urte zituenean Ataun eta inguruetan Natur Zientzietan ikasten zituen hainbat

1 Luis de Barandiarán Irizar. *José Miguel de Barandiaran. Patriarca de la cultura vasca*. Donostia. 1976, 246. or.

2 Andrés Ibáñez Arana. *Historia del Seminario Diocesano de Vitoria. Vol I*. ESET argitaletxea. Vitoria-Gasteiz. 2005. 70-71 orriak.

3 Honako zein izaera antzerako oharra aurrez aipaturiko Luis de Barandiaran Irizarren lanean aurki daitezke.

elementuri buruzko datuak jasotzeko ibilbideak hasi zituen. Halere, zientziarekiko jarrera hori ez zen oztopo Apaiztegiko gainerako ikasketa gaiengatik interesatzeko, batez ere logikan, ontologian eta etikan.⁴

Lente mental bikoitzez honek, sakonekoak, gauzen azken zentzuari eraso egiten dio, eta lehen planokoa, errealtatearen fisionomia xehetasunez antzemateko gai dena, On Jose Miguelen ezaugarriak agerikoena da. Esapide ezagun bat baliatuz, ez zen soilik zuhaitz bakoitza zehatz-mehatz aztertzeko gai, izan ere, baso osoaren ideia orokorra eratzen zuen aldi berean. Berarentzako bi ikuspuntuak osagarriak eta derrigorrezkoak ziren.

Esan barik doa bi lente horiek elkarri eragiten diotela, bien arteko ikusmen eremua izugarri zabalduz. Hortik On Jose Miguelen beste ezaugarrietako bat: ezagutza guztiak interesatzen zitzaizkion funtsean: “Nire ikasketa filosofikoen garaian jasotako ikasgai guztiak interesatzen zitzaizkidan”.⁵

On Jose Miguelen hirugarren ezaugarri bat bere inizatiba eta irizpide intelektual zein praktikoa propioa sortzeko gaitasuna zen. Bere izaera horrek hainbat atsekabe sortuko zizkion⁶, baina era berean, ikuspuntu bat asmatzeko, osatzeko eta adierazteko zein praktikara eramateko bideak sortzeko gaitasun handiko pertsona bilakatu zuen. Apaiztegiko Fisika Laborategiko arduradun zela (bere lehenengo zeregin akademikoa izan zen, oraindik ere filosofiako ikasle zela), bere kabuz esperimentuak egiten hasi zen.⁷

Azkenik, ezin da On Jose Miguel ulertu bere bizitzaren elementu bateratzailea izan zen apaiz-bokazioa kontuan hartu gabe. Bere bizitzaren forjatzean jasotako fede sakona eta modu arduratsu eta koherentean bere egindako bokazioa. On Jose Miguelen aldetik etengabeko bikaintasunaren bilaketaren printzipio formala deitu daitekeena jasotzen zuen bere baitan: santutasunaren eredu, Gasteizko Apaiztegiaren espiritualitasunean horren errotutakoa.⁸ Momentu pertsonal konplikatueta modu berezian agertzen da On Jose Miguelen espiritualitasunaren sakontasun eta nobletasuna⁹. Ereduak oinarritzko lau ezaugarri ditu: zuzentasuna, egiazkotasuna, koherentzia eta fideltasuna, On Jose Miguelen pertsonan, eta zientzia zein apaiz lanetan agerikoak.

On Jose Miguel seminaristaren garaiko Gasteizko Apaiztegia ez zen gaurkoa (1930ean inauguratua) Santa Maria katedral zaharretik gertu zegoen eraikin bat baizik. Bere apaizgai garaian, ikasketetan bikaina, Irakasle karrera egiten du bere kontura, frantsesa, ingelesa eta alemana ikasten ditu, matematika, fisika eta kimika irakasten

4 Cfr. Barandiaran Irizar, 41.

5 Ibid., 42.

6 Cfr., beste adibide batzuen artean, *José Miguel de Barandiaran. Diario personal. Vol I (1917-1936)*. José Miguel de Barandiaran Fundazioa. Sara Bilduma. 2005. 535-536 orriak.

7 Bere “irratia”, adibidez. Morse bidezko seinalea jasotzeko oinarritzko gailu bat, Apaiztegiaren eraikitakoa, Cfr. Barandiaran Irizar, 60.

8 Cfr. Saturnino Gamarra-Mayor. *Origen y contexto del movimiento sacerdotal de Vitoria*. ESET argitaletxea. Gasteiz, 1981. 14-34 orriak.

9 Ikus, adibidez, Op. Cit., *Diario personal*, p. 536, non egileak baieztatzen duen: “Gertatzen zaidan guztia Jainkoaren bidez datorkidala pentsatuko dut”.

hasten da, “pasante” izendatzen dute, hau da, diziplinako prefektu-laguntzaile, eta apaiztu aurretik Leipzigera joaten da Wilhelm Wundt irakasleak emandako ikastaro batera, zeinaren *Völkerpsychologie* lan handia, herrien psikologiari buruzkoa den.¹⁰

Laburpen honek hiru gauza jartzen ditu agerian: lehenengoa, On Jose Miguelen gaitasun intelektual handia; bigarrena, apaiztu aurretik beragan instituzionalki ipinitako konfiantza, bai irakasle eta baita nagusi bezala; hirugarrena, bere autonomia eta sormena, ekintza estra-curricularretan erakutsia (Irakasle-ikasketak, atzerriko hizkuntzak, Alemaniako ikastaroak, besteen artean).

Pare bat ohar osagarrik On Jose Miguelen giza eta adimen sakontasun eta konplexutasuna aurkitzen lagun dezakete. Lehenengoa “ezjakintasun erlijiosoaren” bere krisia:

“... ez dut inoiz krisi erlijiosorik izan. Eduki dudana erlijio ezjakintasun krisia izan da, eta desagerrarazteko erlijioaren eremua ukitzen edo inbaditzen zuten hainbat arazo argitu behar izan nituen. Erlijioen ikasketei buruzko liburuak irakurtzen hasi nintzen arrazoi horregatik. Bereziki batek argitu ninduen: *Problèmes et conclusions de l'Histoire des Religions*. ... Erlijioari eta erlijioei buruzko buruhausteak jorratzen dituzten bestelako irakurzaiek... nire irudikapen munduak iluntzen zituzten hodeiak desagerrarazten lagundu zuten. Bestalde, erlijioaren inguruko argiztapen pertsonal honen ildotik nire herrian ikerketak nire kabuz egiten hasi nintzen”.¹¹

Apaiztear zegoen apaizgai honen jokamoldeak, jasotako fedearen bere jabetze metodoa erakusten du. Dogmatikoki bertan itxi ordez, On Jose Miguelek eremua zabaltu eta fedearen inguruko kontzeptuak zein teoriak ikertzen ditu, bai eta erlijioen berezko ezaugarriak eta historia ere. Horrek, alde batetik, erlijioaren izaera zein agerpen historiko ezberdinak azaltzeko erlijioaren teoria kritikoen (Marx eta Engels, Durkheim, Wundt) desgokitasunaz jabetzeko balio izan zion. Bestaldek, “bidaia kritiko” horrek jasotako herentziaren berreskuratze pertsonal eta koherente bat ahalbidetu zion. Azkenik, Wilhelm Wundten metodoari leial, bere inguruko erlijiotasuna ikertzeari ekin zion, bai morfologikoki zein esanahi kulturalari dagokienez hobeto ulertzeko.

On Jose Miguelek, aurreko guztiagatik, Erlijioen Historia ikasgaia filosofia ikasketa eklesiastikoen Curriculumean sartzea proposatu zuela erakusten du bigarren oharra. Onartu egin zuten eta nahiz eta aipaturiko gaia irakatsi ahal izango zukeen apaiztu arretik ere, irakasgaia ordutegi akademikoan sartzera itxaron behar izan zuen. Bere erlijiotasun propioa finkatzeko baliagarria izan zitzaion “jakintzaren hedapen” hau, bere ustez herri-erlijiositatea hondatzen ari zen momentuan, On Jose Miguelen buru-

10 On Jose Miguelen etapa honi buruz, ikus Barandiaran Irizar, 49-57 orriak; Ander Manterola eta Gurutzi Arregi. *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran 1889-1991*. Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa. Sara Bilduma. Ataun. 2003, 27-28 orriak.

11 Barandiaran Irizar, 245; krisialdi honen analisi sakonago baterako, ikus Ander Manterola. “La Escuela Vasca de Etnología”, Ander Manterola, José Miguel de Barandiaran eta beste batzuk, *La etnia vasca*. Euskaldunak 4. Etor. Donostia. 1982, 30-36 orriak.

-argitasunaren erakustaldia da: “Gaur dekadentzia erlijioso betean murgilduta gaude”, idazten zuen 1924an bere egunerokoan.¹²

Bere aurreneko irakasle lanetatik, oraindik apaizgai zela, 1936an Apaiztegitik irten zen arte, On Jose Miguelek honako irakasgaiak eman zituen: Fisika eta Kimika, Geologia, giza Paleontologia eta Historiaurrea, eta Erlijioen Historia. Irakasle lan hauek nagusi betekizunekin uztartu zituen: “pasante” aurrena, Aguirre Apaiztegi Txikiko diziplina prefektua, aipaturiko apaiztegiko errektorea, eta azkenik, Kontziliar-apaiztegiko errektore-orde. Bere ospeak, prestakuntzak eta atzerriko bidaiek eta ikasketek (Frantzia, Belgika, Alemania, Holanda eta Ingalaterra batez ere) ez zuten oinarritzko lanak egitetik salbuetsi; nahiz eta beharrezkoak izan, ez zuten zerikusirik ez bere bokazioarekin ezta kezka pastoral eta intelektualarekin ere. 1922an, atzerriko ikasketa bidaietatik bueltan ikasitakoari probetxua atera nahirik, frustrazioz idatzi zuen:

“Hemen gertatu zitzaidana: Urte hartako urrian garbitegi mekanikoa inauguratu zen Apaiztegian. Hiru astez Apaiztegi guztiko arropa (hiru garbiketa) egitea agindu zidaten eta beste bi beranduago, egiteko horren ardura izango zuen morroiak makinaren erabilera ikasi zuen arte. Denbora horretan zehar eskoletatik dispensatu ninduten eta kalez jantzita ibili nintzen, garbitokiko lokaletan blusa batekin, ikasturteko unerik garrantzitsuenean, hau da, urria hasieratik abendu amaiera bitartean”.¹³

Hala eta guztiz ere, metodoari dagokionez intelektual zorrotza bilakatzen doa On Jose Miguel, pentsamendu orokorreko ikuspuntu batekin (psikologia, soziologia, psiko-soziologia, komunikabideak, logika, misionologia, etika, hizkuntzak...), garaiko erronkei adi eta Apaiztegia “bikaintasunaren gune” izan zedin tematuta, beti ere urrats tinko eta azkarrekin.

Benetan konplexua da On Jose Miguelentzat Apaiztegiak zer adierazi zuen argitzea, eta baita alderantzizkoa ere. Esan daiteke bere *alma materra* izan zela, bere izaera abertsaren dimentsio ezberdinak mamitzen joan zen instituzioa, nahiz eta aurrez aipatu den bezala, horren hedatzea ez zen Apaiztegi mugatu. Beraien artean erlazonatutako lau alderdi azpimarratu behar dira.

Lehenengoa, talde-lana. On Jose Miguelen egunerokoak hainbat apaizgai-kiderekin izandako adiskidetasun eta komunitate erlazioa erakusten digu, eta batez ere Manuel Lekuonarekin. Honekin Gasteiz inguruko hainbat tokitara elizak eta bestelako interes-guneak ezagutzeko bisitak konpartitzen zituen.¹⁴ Denboraren joan-etorriaz, bere kideekin sortutako erlazio hori laguntasun, anbizio intelektual, zorrotasun kritiko eta talde dinamikaz konbinatutako proiektu batean gauzatu zen: *Lyceum Cassiciacum*. 1924ko urriaren 4an, larunbata, sortu zen eratzekeo ideia. Goizean Apaiztegiko ikasturtearen

¹² *Diario personal I*, 540.

¹³ *Ibid.*, 531

¹⁴ *Ibid.* Adibez, 504-513

hasiera eman zen. Arratsalde horretan, On Jose Miguel On Antonio Pildain irakurketakanonigoa eta Teologia Dogmatikoko irakaslearekin, eta On Leoncio Aravio-Torre Biologia eta Natur Zientzien irakaslearekin irteten da paseatzera. Apaiztegiaren pentsaerak molde berriak sustatzeko moduak pentsatzera bultzatu zituen goizeko ekitaldiak. Talde formal bat (hasiera batean “tertulia erlijioso-zientifiko” moduan sortua) eratzea erabakitzen dute, bere izena Pildainek proposatua da eta On Jose Miguelen bulegoan dauka egoitza. Segituan batzen da On Manuel taldera eta hiru egun beranduago On Manuel berak eta On Jose Miguelek estatutuak idazten dituzte. Beraien lanaren adibide, eta umore finaren eredu, urriaren 14ko sesioaren kontakizuna jasotzen du On Jose Miguelek bere egunerokoan:

“Cassiciacum” biltzen da. Orriak aurkezten ditugu, bakoitzak hilaren 11ko bere lanari dagokionak. Arabiok eta Pildainek nireak zentsuratzen dituzte, estiloa modernistegia dela argudiatuz, “sumatu”, “arakatu” eta bestelako hitzak erabiltzen ditudalako. Pildain horrenbeste nahasten da bereetan bistatik galtzen dugula, eta horregatik zentsuratzen dugu eta bere jarrera zuzentzera behartua da. Lekuonak neurrian jarraitzen du eta ez gara berarekin haserretzen. Baina Araviok biologiaren gai abstraktuaren kontra egiten du eta nik kritikatu egiten dut, literalki ongi esanak diren, baina Zientziak exijitzen duen zehaztasunik ez duten esaldiak erabiltzen dituelako. Azken helburuaren inguruan Cassiri interes handiz Araviok proposatzen dion gaiari buruz hitz egiten dugu guztiok. Buruak berotzen ditugu eta asko eztabaidatu ondoren, Araviok ez du eztabaidagandik espero zuen argi izpi sortarik ere ateratzen, eta gainera aurreikusten zuen dirdira apurra ere galtzen du. Honakoa gertatuta, joan egiten gara”.¹⁵

Egungo terminologiaren, *Lyceum Cassiciacum* Gasteizko Apaiztegiko bizitza intelektuala modu sortzaile batean suspertzeko baliagarria izan zen bere garaiko *Think-tank* bat izan zela esan daiteke. Nahiz eta izenaren jatorriaz daturik egon ez, onartu zutenek *Lyceum* Aristotelesek -zeinaren pentsamendu filosofikoa zientzian irmoki oinarritzen zen-, Atenasen sorturiko eskola izan zela ezagutzen zutela esan daiteke. Era berean, Cassiciaco San Agustin denboraldi batez lagun eta amarekin bakartu eta bere konbertsioa eman zen Milan kanpoaldeko basetxea zela ere bazekiten.¹⁶ Izenak, beraz, tertuliaren bi dimentsioak, zientifiko-aristotelikoa eta erlijioso-agustiniar-platonikoa, islatzen ditu, ez kasualitatez eta ezin hobeki gainera, bai eta eskola eta talde moduan eratzeko bo-kazioa ere. On Jose Miguelek bere egunerokoan taldea sortzeko ideia norena izan zen ez aipatzeak beragandik irten zela iradokitzen du. Eta egoitza bere bulegoa izateak hipotesia egiaztatzen duela dirudi.

Bigarren alderdia On Jose Miguelek ikasketa eklesiastikoei eman zien bultzada berritzaileari dagokio. Horri dagokionez, hala idazten zuen On Manuel Lekuonak:

¹⁵ Ibid., 554-555.

¹⁶ San Agustin. *Confesiones*, IX. 3-4.

“Gure kasuan, On Jose Miguel Gasteizko Apaiztegiko Ikasketen eraberritze erradikalaren bultzatzaile handiena da zentzu zientifikoan, eta modu orokorrago batean Euskal Ikasketena... Ikasketa Eklesiastikoak orientazio urrikoak ziren... Eskasia hori Natur Zientzien arloan zegoen... Behin eta berriz salatzen zuen beste urritasun bat Ikasketa Eklesiastikoek (Euskal) Herriko gaietarako zuten joera falta zen”.¹⁷

Hirugarren alderdia irakaskuntza metodoari dagokio, bere baitan ikaskuntzarena hartzen duelarik. On Jose Miguel Akademien eta Laborategien bultzatzaile handia izan zen, seminaristak eurak ikertze eta lanen eraketan nahasteko modu bat bezala. Ezagutza esperientzian sustraitzeko batetik, eta bestetik, ezagutza bera liburuetakoa soilik izateari uzteko. Wundt-en erlijioaren inguruko teoriarekin kritikoa zen arren, honek On Jose Miguelen baitan bere lanean oinarritzkoa izango zen printzipio bat utzi zuen grabatuta: “giza gertakariak ez dira egokiro ulergarriak bizi izan ez dituenarentzat”.¹⁸ Hortik dator bereziki berezko kulturaren ikerketan arreta ipini beharra, ezagutzen den horretan eta barrutik. Zentzu horretan apaizgaiek euskal hizkuntza eta bere literatura ezagutzeko eta haren erabilera idatzian eta sortze literarioan erabiltzeko, On Manuel Lekuonak *Cassiciacum* sortu zen urte berean zuzendu zuen *Academia Cardaveraz*. Bere aldetik, On Jose Miguelek Eusko Folklorearen Elkartea, Etnologia eta Eusko-Folklore Laborategiak eratu zituen, berak sortu eta zuzendutako Eusko Folklorearen Urtekarian argitaratuz lanak.

Azkenik, laugarren alderdia ikerlari eta zientzialari gisa aurrera eramandako jarduerari dagokio. Organikoki bere bokazioari eta Apaiztegiko ardurei itsatsita egon arren, mugak gainditzen zituen, espainiar zein atzerriko unibertsitate eta zentroetako ikerlari eta elkarte zientifikoekin harremanak eginez. On Jose Miguel Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetarikoa bat izan zen 1918an, eta lotura izan zuen azken egunera arte instituzioarekin. Ez da posible lan labur honetan On Jose Miguelen dimentsioaren berri ematea, zeinak nazioartean hitzaldiak eman eta garrantzia handiko hainbat kargu izatera eraman zuen.¹⁹ Halere, funtsezkoa da zentzu horretan Eguren eta Aranzadi irakasleekin izan zuen harreman profesionala azaltzea; bi hamarkadatarako arkeologia eta etnografia kanpainak partekatu zituzten, bai eta erlazio pertsonal estua ere.²⁰

On Jose Miguelen Gasteizko Apaiztegiko egonaldi labur honetan aipatu beharrekoa da *Gymnasium* eta *Idearium* aldizkariak sortzeko emandako bultzada, batez ere azken

17 Barandiaran Irizar, VIII-IX.

18 Manterola eta Arregi, 282.

19 Cfr. Barandiaran Irizar, 97-105; Manterola eta Arregi, 53-70.

20 Cfr. Barandiaran Irizar, 112-125; Ander Manterola. “La Escuela Vasca de Etnología”, 26-44. Autore honentzat “errealitatearen erromantizismo idealizatuak eta euskalduna zen oro lokalistegia izateagatik ikertzailearen esfortzuaren errealitate mespretxagarritzat zuten unibertsaltasun erosoak gaindituz”, Aranzadi, Eguren eta Barandiaran “ikerketaren etnologikoaren ezinbesteko haustura metodologiko” baten egileak izan ziren, “euskal etnia taldearen ikerketara aplikatutako eskola metodologiko zientifikoari” lekua eginez. “Bertsolarismoa edo goldea sartzearen moduko fenomeno kultural gisa kontsideratu behar” litzatekeen zerbit.

horri dagokionez; bihilabetekaria zen, 1934an hasi eta hamaika zenbakiren ondoren bi urtetako bizitza ere izan ez zuen agerkaria. Zuzendaria izateaz gainera, On Jose Miguelek “Gure inkestak. Gasteizko elizbarrutiaren pentsamendu erlijiosoak” atala babesten eta kontrolatzen zuen eta “Gure inguruko ideia eta gertakariak” atalaren egilea zen.

*Idearium*ean bi gai azalarazten dira. Biek On Jose Miguelen interes intelektul zabalaren sostengatu eta bere ingurunearekin alderatuta oso aurreratuta zegoela erakusten dute. “Gure inkestak” atala aldenduta egon ohi diren eta kontrakoak izan daitezkeen bi diziplinekin dago erlazionatuta: etnografia eta soziologia. Ikasleek eginiko galdeketan lanak sozio-etnografikoak izaten ziren. Batetik ematen ari ziren aldaketa erlijiosoak neurtu nahi ziren horien bidez, eta bestetik, baita inkestak egiten zen herrietako obra erlijiosoaren esangura kulturala ere. Ikuspuntu pastoral batetik erlijiotasun esanguraren galerarekin arduratuta zengoen On Jose Miguel eta harraminta zientifiko bat baliatzen zuen galeraren zenbaterainokoa neurtzeko. Era berean, egunen batetan pastoralki jardungo zuten ingurunean ematen ari zen aldaketa kulturalari eta erlijiosoari buruz informatzen zituen ikasleak, berau neurtzeko baliabide zientifiko bat eskainiz aldi berean. Esan liteke inkestak izan zirela Euskal Herriko lehen soziologia erlijioso ariketak.

“Ideia eta gertakariak” atalak antzeko konplexutasuna azaltzen du. Batetik, 1934-35 urteetako moduko ingurune oso ideologizatuan eta nahasian, On Jose Miguelek iritzi ezberdinak zundatu nahi zituen, horretarako mota ezberdinetako egunkarietan eta aldizkarietan irteten ziren artikulua baliatuz. Bigarrenik, kazetaritza ideologikoaren kritika egitea bilatzen zuen, honek artikulugilearen jarrerari mesede egin eta iritzi egoera sortzeko datuak eta besteen iritziak nola manipulatzeko zituen erakutsiz. Modu horretan, kazetaritzaren deontologiaren gabezia larriak azaltzen zituen bitartean, objektibitatearen eta kritikaren beharraz ohartarazten zituen irakurleak. Azkenik, bere adierazpenak ahots publikoa ziren, koherenteki arrazoitze eta une hartako giro nahasian erreferentzia gisa erabiliak izateko gai. On Jose Miguelek komunikabideei eta gizarte modernoan iritzi publikoa osatzen zeukaten eginkizunari ematen zien garrantzia adierazten du guzti horrek, aurrez irratian zeukan interesaren bidez azaldu zuen bezala. Berriz ere elkartuta agertzen ziren interes kulturala eta pastoralak:

“Faktorea-pertsona-gizartea arteko lotura eta funtzionamendua ezagutzea baliagarria zaio pertsonekin eta herrietan jardun behar duenari.

Baina horiek gure elizbarrutiko kasu konkretu eta errealetan ikustea, landa-bizimoduko espirituarekin, hartzidura sozial berriekin, iritzi joerekin, prentsak, hedabideek eta herri honetako industrializazio konplexuak egunero dakartzaten ordena erlijioso eta moraleko arazoekin harremanak sortzea, aldizkari bateko irakurleei bereziki interesatzen zaien zerbait da, zalantzarik gabe. Eta horixe da hemendik egin nahi dugun lana.²¹

...

21 *Idearium*, 1. 1934 Martxo-a-pirila, 24.or.

Esandakoa gure giroan, gure herrian zatibitutako ikerketa abiarazteko oinarria izan daiteke, honakoak erakutsiko luketen gertakaria ikertuz: 1.go irakurle publikoak nola egunkariaren bilbea eta joera espiritual baldintzatzen eta moldatzen duen; hau da, zein modutan eta mailatan den egunkaria iritzi publikoaren adierazpen organoa. Bigarren, nola egunkariak bera iritzi hori sortzen laguntzen duen eta nola bideratzen eta zuzentzen duen bere irakurlegoaren jokaera”.²²

Puntu batera arte harrigarria da On Jose Miguelek elizaren, gizartearen, kulturaren eta zientziaren erlazioa lantzen dituen *Idearium*-eko bere artikuluetan erakusten duen autore eta diziplinen ezagutza maila zabala (soziopsikologia, soziologia, teoria sozialak, filosofia, kazetaritza, teoria politikoa, zientzia positiboak, etika, hizkuntzak...).

Laburpen bezala, Gasteizko Apaiztegiko garaiko On Jose Miguel (1906-1936) pertsona zuzena eta heldutasun bikainekoa zela erakusten du. Pentsalari organikoa bilakatzeko da, nazioarteko proiektzioa du, metodoari dagokionez zehatza da, pentsamendu integraleko ikuspuntua duena, garaiko erronkei adi eta Apaiztegia bikaintasun gune bat izan zedin tematuria. Bokazio organiko hau gerragatik eta erbesteratzeagatik zapuzten da. Momentu hartatik aurrera bere lan zientifikoa jartzen du arreta On Jose Miguelek (etnografo, arkeologo eta etnologo)²³, eta lantzen jarraitu zuen eta bere bizitzaren ardatz izaten jarraitu zuen oinarritzko apaiz dimentsioak ez zuen ez enkargurik ezta garapen bide instituzionalik aurkitu ahal izan.²⁴

²² Ibid., 27.

²³ Ikus Ander Manterolaren “La Escuela Vasca de Etnología”, *op.cit.* 25-158 orriak. Ikerketak 1982 arteko On Jose Miguelen ibilbidea jaso eta sakon ikertzen du, Gasteizko apaiztegi garaitik On Jose Miguelen ikerketa gida jarraituz *Atlas Etnográfico de Vasconia* aurrera daramaten ETNIKER taldeen sortzera.

²⁴ Bere egunerokotik Gasteizko jarduketari, egoera berriari eta horren jatorriari buruzko bi pasarte nabarmen-
tzak merezi du:

“Eskerrak Jainkoari nire bizitzarekin asebeteta nago, irakasle, Aguirre Apaiztegiko (Gasteizko) errektore, Kontziliar Apaiztegiko (de id.) errektore-orde, Etnologia Laborategiko zuzendari eta bestelako ekintza publikoetan eginikoez pozik. Jainkoak epaituko nau, baina, objektibitate guztiz: Jainkoaren begietara naizena naiz. Nire ekintzak alderdi politikoei lotu ez izanaren poztasuna daukat. Euskal herriagatik lan egin dut, bertan jaio nintzelako, eta euskalduna naizelako. Nire herria maite izan dut; baina eskusibismorik gabe. Zoritarrez, euskal herriarekiko ikerketa eta maitasuna “separatismoa”ren sinonimo diren garai batetan bizi izan naiz, ez dutelako beraienak ez diren argitasun eta handitasunak onartzen. Horregatik nago deserrian”. (JM Barandiaran. *Diario personal. Vol. II (1936-1953)*. Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa. Sara Bilduma. Ataun. 2009, 601.or.

“Espainiatik itzultzera gonbidatu naute. Baina herri hartako egoera politikoaren segurtasun ezak eta batez ere nire elizbarrutiko kleroaren jarrerak (kleroaren zati bat: Administratzaile Eklesiastikoa, elizbarrutiko kleroaren montepioa, Gipuzkoako Elizbarrutiko Elkarrekiko Laguntza Elkarteak), ahal izan duen guztia kendu didanak, nire itzulera atzeratzearen arrazoi nagusia izan da. Ni ezabatzeko eta nire bizitza gaiztotzeko ahalegina egin dute. Ezinezkoa zait une honetan Gasteizko diozesian bizitzea. Jainkoari eskerrak nire lanak, Goikoak bedekintua denak, aurrera aterako nau, Gasteizko elizbarrutiko kleroarekin kontakturik izan ez dudana azken bost urteotan bezalaxe. Nire herrian apaiz politikoei ez naute nahi; beraiena da gaur egun boterea eta indarra. Mundua zabala da: nire lanekin jarraitzeko tokiren bat izango dut. Ez naiz hara joango momentuz.” (Ibid, 647 or.)

Zientzia eta fedearen arteko lotura sakona

On Jose Miguelen lan zientifikoari gerturatzean bere metodoa ikertzea beharrezkoa da.²⁵ Ikuspegi orokor gisa, “errealitateari lotutako” metodoa dela baieztatu daiteke. Lehen ezaugarrietariko bat, aurretik aipatu dena, Wilhelm Wundt irakaslearen eskutik ikasi zuen. Wundt-entzat gertaeren bizipena horiek behar bezala interpretatzeko gakoa da. Horregatik, kultura baten interpretetik onena berau bizi izan duena da. Beraz, ez da harritzekoa On Jose Migueli bere errealitate propioaren ikerketara dedikatzea gomendatu izana.²⁶

On Jose Miguelek Aranzadirengan liburuetako-zientziatik aldentzea metodologikoki sendotuko zuen irakasle bat aurkitu zuen. Wundt-ek aipaturiko “zientziatik” aldendutako eta ikertzailearengandik urruti zeuden kulturak interpretatzeko teoria orokorrekin kritiko izateko bidea erakutsi bazion, Aranzadik morfologikoki deskribatutako eta teoria orokorrik gabeko datuen etnografiaren eta arkeologiaren bidea erakutsi zion Barandiarani.²⁷ Bide horretan arkeologia etnografiaren osagarri gisa ageri da.²⁸

Ikertutako errealitatearen morfologia deskribapen metodologiaren ezinbesteko ezaugarriak dira zehaztasuna, xehetasunei arreta eta zorroztasuna. Testu baten literalasuna bezalakoa da aipaturiko deskribapena. Honakoa hainbat interpretazio edo esanguren objektu izan daiteke, baina denek testu literalari dagokie. Berdina gertatzen da “testu” etnografiko eta arkeologikoekin. Interpretazio objektu izan daitezke eta izan behar dira, baina zilegi izango dira soilik aurkitutako objektuen bilketa eta deskribapen morfologiko zorrotzean oinarritzen badira. Datuei hitz egin dezaten uzteko derri-gorrezkoa da hauek benetakoak izatea, egiazkotasun hori behintzat metodologikoki bermatua izan daiteken heinean.²⁹

On Jose Miguelen metodologiaren beste ezaugarrietako bat bere multipolartasuna da. Bere interesak teoriko-pastoraletik hasi eta indusketa, inbentario eta objektuen katalogazio tekniketara iristen zen, filosofia, etika, misionologia, soziologia, komunikabide, teoria

25 Metodoaren analisi sakon baterako ikus aurrez Ander Manterolaren “La Escuela Vasca de Etnología”.

26 Ikus Ibid. 36, non On Jose Miguelen adierazpen pertsonalean honela baieztatzen duen: “Wundt-ek ekintza programa bat eskaini zidan... giza-taldeen jarrera zientifikoki ikertzeko modurik onena zure giza-taldea ikertzea da... Zure herriko kultura ikertzen baduzu testuinguruaren arabera jatorrizko zentzua duten datuak biltzeko gai izango zara. Testuinguru hori soilik ikertu nahi duen kultura horren erdian hazi den pertsonak eskaini dezake. Zuk testuinguru hori daukazu, bizi izan duzulako”.

27 Honen adibide argia On Jose Miguelek eboluzioaren teoria orokorrari egiten dion kritika da. Kritika hau ez dago ideologia aurreiritzietan oinarrituta, ikertzaile paleontologikoei emandako datuen pisan oinarrituta baizik. Ikus, *Diario personal I*, 737-745, non Susaeta doktorearekin eboluzionismoaren harira izandako tirabirak erakusten dituzten On Jose Miguelen hainbat artikuluko jasotzen diren.

28 On Jose Miguelen hitzetan: “Historiaurreari buruzko lanak antropologia eta etnografia ikasketen osagarriak ziren. Batez ere, eta niri bezala, etnografia ikuspuntu batetik interesatzen zitzaizkion; baita eskaini zezaketen material antropologikoagatik ere”. (Manterola, “La Escuela Vasca de Etnología”, 40)

29 On Jose Miguelek ondo zekien datu arkeologikoen mugak zeintzuk ziren. Ikus Ander Manterola “Entrevista con D. José Miguel de Barandiaran”, *La Etnia vasca*, 278 or.: “Historiaurre arloan oso zaila da lan zientifiko bat egitea, izan ere, guk nahi ala ez, bildutako datu arkeologiko bakoitza bere testuingurutik isolatuta dago ia kasu guztietan. Datu baten testuingurua alde batera utzita datuak ezin dira ia ulertu, eta beraz, ezta interpretatu ere.”

sozialak eta politika, hizkuntza, natur zientziak, fisika, kimika, matematika, etnologia, etnografia, arkeologia eta paleontologiatik pasatuta. Halako metodoak ezagutza modu bat adierazten du, multipolaritasuna barne koherentziarekin konbinatzen duena, eta horregatik, “esferiko” moduan kontsidera daitekeena. Ezagutza horrek kulturaren, bereziki Euskal Herrikoaren gakoak aurkitzea bilatzen du. Hala idazten zuen 1918an On Jose Miguelek: “Arazo filosofikoak interesatzen zitzaizkidan; baina euskal herriaren ikerketa etnografikoa egin behar zen, eta ahal balitz, eremu horretan planteatutako arazoena”.³⁰

On Jose Miguelen zientzia eta fedearen arteko lotura erabat ulertzeko kontuan hartu behar da munduaren, bizitzaren eta historiaren zentzua ulertzeko mahai-gai-nean ipintzen zituen galderak, eta bere herriko kulturak horiei ematen zien erantzuna ezagutu nahi zuen. Ahalegina egin daiteke zehazteko On Jose Miguelek etnografia, etnologia, eta historiaurreko hurrengo etapetan, gorago aipatutako ezagutzarekin eta bereziki zuen afinitate naturalaren oinarrian:

- 1.- Apaiztegiko ikasketek eta espiritualitateak ezagutzaren eta bokaziozko benetakotasunaren bilaketaren mundua irekitzen dizkiote, pasioz murgiltzen den mundua.
- 2.- Zientziarekin eta orokorrean garapena munduaren eta historiaren motorra eta patua dela dioten teoria sozial kritiko berrieekin (Durkheim, Marx, Nietzsche, Comte...) harremanetan ipintzen du irekiera horrek.³¹
- 3.- Ezagupen horrek bere “humanismo tradizionalan” eta honek giza itaun handien inguruan emaniko erantzunetan eragindako galdera saihestezina sortzen dizkio, eta On Jose Miguelek oinordetzan hartutako kulturaren berrikuspen kritikoa egiten du, baita erlijiosoarena ere. Zientzia eta garapenaren ideologiaren teoria kritikoen erantzunekin pozik ez eta bide propioa egiteko beharra sentitzen du.³²
- 4.- Ibilbide intelektual eta existentzian, natur zientzietan, fisikan eta matematiketan sakontzen du eta bere inguruetatik irtetera eramaten du, aurrez aipatu bezala, beste testuinguru kultural batzuek eskaini diezaioketena bilatzeko. Une horretan aurkitzen du On Jose Miguelek bere bidea: “Wundt, Graebner, W. Schmidt eta Breuil moduko irakasleen gomendioak, eta Aranzadirekin, Bartzelonako unibertsitateko katedradunarekin izandako tratu eta konpainiak, metodo egoki batekin ikertzera bultzatu gintuen”.³³

30 *Diario I*, 513.

31 Ikus Manterola, “La Escuela Vasca de Etnología”, 32, non autoreak baieztapen hau egiten duen: “Kontraesankorrak eta antagonikoak ziren pentsamendu eta bizitza proiektu korronteen elkargunea zen: dependentzia estra-gizatiarretik askatzeko modu bezala ateismoak zein positibismo zientifiko eta gizakiaren garapenaren zerbitzura zegoen teknikan oinarritutako garapenak talka egiten zuten, garaiko intelektual ezagunen ustez, etxean eta formazio guneetan oinordetzan hartutako balore klasikoekin”.

32 On Jose Miguelen hitzetan: “Mendeko bigarren hamarkadako garai hartan gizakiaren berreskurapenaren bilaketan krisi berria sentitzen hasi ginen, gure belaunaldiko zati handi batek inoiz baino beharrezkoagoa zen galdera zuen bere aurrean: ‘Zer gara bakoitza?’, eta aldi berean, ‘Zer da norbanakoari eskaintzen zaion mundua?’ (Idem)

33 Ibid. 34.

- 5.- Kritikoki ikertutako materia zientifikoa, bere kultura propioari, Euskal Herrikoari zegokiona, giza galderei ematen zien erantzunari zegokiona zen azken finean. Etnografia izan zen etnologiko deitu dezakegun erantzun hori aurkitzeko bidea:

“Beti izan dut bokazio etnologikoa eta funtsean Etnografian jardun dut. Historiaurre ikertzailea baino etnografoagoa naiz... eta Arkeologia munduan sartu nintzen gauza osagarri gisa. Are gehiago, egin nuen aurreneko indusketa arrazoi etnografikoengatik egin nuen.... Beraz Etnografiagatik hasi nintzen eta hainbat datuk Arkeologiarekin zerikusia izan zezaketela jabetu nintzen. Nire irakasle Aranzadiri berdina gertatu zitzaion”.³⁴

- 6.- Esan dugu On Jose Miguelek errealitatearen ikuspuntu “esferikoa” zuela. Horregatik ez zen nahikoa kulturari buruzko datuak eta gertakariak ezagutzea, horien “esanahi kulturala” aurkitu behar zen. Bere hitzetan:

“Datua bere testuinguruan ezagutzea da. Beste zati batzuei organikoki loturik dagoen beste zati bat ezagutzea moduan da, horiek gabe zentzurik izango ez lukeena... Giza gertakarien ezagutza batetara iristeko, beraz, hainbat alderdi izan behar dira kontutan: morfologikoa, funtzionala, kulturala eta nahitasuna. Metodo gisa baliatu dugun printzipioetariko bat honakoa da: Ikusten ez dena giza gertakari bat ezagutzeko alderdirik garrantzitsuena dela, eta ikusezina intentzioa da”.³⁵

- 7.- Gertakarien esanahi kultural horren ezagutza ez da iraganaren ikuspegi batean zentratzen; On Jose Miguelen bidea zuzendu zuten oinarritzko arduetan aurkitzen du, ordea, motibazioa:

“Gizakiaren etorkizunak kezkatzen ninduen eta nau. Baina gizakia ez da errealitate abstraktu bat, espazio eta denbora konkretuetan kokatutako gizarte zehatzetan bizi baita. Nire ardura etnografikoak gizakiaren eta euskal herriaren etorkizunean ipini du arreta berdinki. Nire iker-tzaile ekintzarekin bat doan motibazio afektibo bat dago, beraz”.³⁶

34 Manterola. “Entrevista con D. José Miguel de Barandiaran”, 276.

35 Ibid., 278-279.

36 Ibid., 287. Horrek ez du “ez euskaldunari” itxiera bat suposatzen. Kontrakoa, “antzekotasunak, loturak, eta inguratzen gaituzten kulturen eta gurearen arteko balizko dependentziak bilatzeko beste kultura eremu batzuetara irekitzea” funtsezkoa da. “Kultura baten originaltasuna ez da oinarritzen kultura batek goitik behera kultura hori eraiki izanean... gai unibertsal bakoitzari herri batek norabide desberdin bat, modu ezberdin batean eman izanean oinarritzen da”.

- 8.- Azkenik, gertakarien esanahi kulturalaren ikerketa kultura eremuaren barruko prozesu jarrai bat bezala ulertu behar da. Fenomeno kulturalak ikertzen dira, lehengoak eta oraingoak eta baita euren esanahia, “egungo gertakariak prozesu baten baitan kokatzeko asmoz. Prozesu horren baitan bakarrik ikus dezakegu kulturak daraman joera”.³⁷

Zalantzarik gabe Barandiaran euskal kulturaren “arima” saiatzen da aztertzen, hau da, kultura batek gizakiaren itaun unibertsalei³⁸ ematen dien erantzunaren jatorria, modua eta izana. Berak honi “Euskal Herriko³⁹ etnia ezagutzea⁴⁰” deitzen dio, eta iragan mendeko hirurogeigarren hamarkadaren erdialdean Euskal Herriko lurralde bakoitzeko herri ezberdinetako monografia etnografikoak sortzen ditu horretarako. Tokiko kulturaren alderdi guztiak barne hartzeko pentsatuak daude monografia horiek. Eta aspektu bakoitza gainerakoengandik argituak izateko moduan, gertakari edo fenomeno bakoitzari bere “esanahi kulturala” emateko aukera edukita, ez soilik modu lokalean, baita lurralde mailan ere.⁴¹

Etnografiak jaso nahi dituen alderdi ezberdinei dagokienez (ingurua, etxea, auzotazuna, hizkuntza, osasuna, bizimoduak, jokoak, legendak ...) erlijioari eta humanismoari dagokion aurkitzen da gailurrean. Barandiaranek idatziz jasotzen du toki askotan, modu batean edo bestean, “ez gara gure baitakoak, gu geu eta bizi garen mundu hau gainditzeko gaituen norbaitena baizik: hau da, Jainkoarena”.⁴² Eta hala jarraitzen du: “Horra hor gure humanismoaren sustraia eta printzipioa: Jainkoa gure hasiera eta amaierako erreferentzia dela aitortzea, Beragana gidatzen gaituen biderik onena bilatu eta onartu. Horrelakoak dira euskaldunon jarrera egituratu duten programa orokor baten prozesuaren faseak eta kapituluak”.⁴³ Euskal unibertso-mentala animismoak eta bestelako erlijiotasunak bete zutela onartuta, kristautasunak aipaturiko unibertsoa jaso eta transzendentalki altxatu zuela baieztatzen du Barandiaranek, Jesukristo jarraitu beharreko eredia izanda.⁴⁴

37 Ibid., 296. Honi dakionez, garrantzitsua da baita ere “bizitasun indizea” edo baieztapen zein gertakari kultural baten onespen gradua ezagutzea. Ez da soilik idatziz jaso behar, halako baieztapena edo gertakaria kulturaliki bizirik dagoen, edo soilik dagoeneko ez den baina garai batean izan zenaren oroitzapen hutsa den neurtu behar da. (Cfr. Manterola, “La Escuela Vasca de Etnología”, 130)

38 Barandiaranek alderdi horretarako “ikusiezina” hitza baliatzen du, gertakari kultural bat interpretatzeko nagusitzen den zerbait. (Cfr. Manterola, “La Escuela Vasca de Etnología”, 138-139)

39 Manterola, “La Escuela Vasca de Etnología”, 130.

40 “Etnia deitzen diegu kultura jakin bat duten giza-taldeei” (J.M. Barandiaran, “Etnografia”, *Etnia Vasca-n*, 251). Jarraian, Barandiaranek zehazten du galdera unibertsalei giza talde bakoitzak ematen dien erantzuna direla kulturak; era berean, kulturak dinamikoak direla argitzen du, beti mugimenduan dauden prozesuak direla.

41 Cfr. Ibid., 130-131.

42 On Jose Miguelek “gu ez gara gure baitan” esaldiaz aipatzen zuen hori.

43 J.M. Barandiaran, “Etnografia”, 272.

44 Cfr. Idem.

Noski, kristau humanismoaren oinarri erlijiosoen iraunaldi falta progresiboaren jakitun zen On Jose Miguel: “Gaur egun gure herriaren ikuspegi kristaua gutxituz doa... humanismoaren eta erlijioaren sinbolo zaharrak iluntzen zihoazen. Horregatik gutariko asko, nahiz eta modu lauso batean bizitza programa baten irudi kristaua jaso, pertsonalitatea serioski finkatzeko oinarririk eta heldulekurik gabe geratu ziren”.⁴⁵

Orain arte garatutakoarekin agerian utzi nahi izan da ez soilik zientifikoa ez dagoela banatuta erlijiosotik, baizik eta gizateriaren itaun unibertsalen erantzunen baitan, giza talde baten erlijiotasun zehatza ezagutzeko beharrezko tresna dela.

Lan honen azken puntu labur bat On Jose Miguelek zientzia eta fedearen arteko erlazioa nola ikusten zuen da. Bere etnografia eta historiaurreko lanetan erabilitako metodoaren eta aipaturiko erlazioa formulatzen zuen moduaren artean kontraesanik ez dagoela esan behar da. Barandiaranengan, fedea, bokazioa, jokamoldea, bere herriarekiko maitasuna, zorrozatasuna, lana eta prestutasun zientifikoa eskutik doaz. On Jose Miguelek dimentsio zientifikoak zeharkatutako bere bizitzaren bikaintasun, humanitate eta espiritualitate itun bat idatzi zuen; santutasunerako bidea moduan ulertu zuen bizitza, zalantzarik gabe.

1934ean *Idearium* aldizkarian idazten zituen artikuluetan, erlijioaren eta zientziaren arteko dibortzioa baieztatzen zuen Zozaya jaunaren artikulua kritikatzeko dagoeneko:

“Zientziagandik dibortziazetik urrun...’ Noiz dibortziatu da erlijio kristaua zientziatik? Kristautasunagatik goraipatu eta ez baztertua izan den erlijio naturala, gizakiaren funtzio diskurtsiboaren emaitza da berez. Unibertsoaren eta gizakiaren ikuspegi zientifikoak erlijio bat inposatzen dio gure kontzientziari. Mundu fisikoak eta inteligentziaren eta askatasunaren munduak ezinbestekoa den eta haren beharra dugun izaki adimentsu eta aske bat eskatzen dute. Eta egia horren onarpena erlijioaren oinarri arrazionala da. Non dago, beraz, dibortzioa? Unibertsoari eta gizakiari buruzko gure ezagutza geroz eta zehatzagoa izan, hau da, naturaren eta espirituaren zientziek geroz eta aurrerago joan, hobeto ulertzen ditugu orduan erlijioaren oinarriak”.⁴⁶

Berrogei urte beranduago, bere iloba eta biografo Luis Barandiaran Irizarren “Fedearen eta Zientziaren datuak bateratzeko oposizio edo zailtasunik izan duzu noiz-bait?” galderari honakoa erantzuten zuen On Jose Miguelek:

“Inoiz ez. Nola izan daitezke antitetikoak egia berdina bilatzen duten bi modalitate espiritual? Zientziaren bidez aurkitutako Egia erlijioak irrikatzen duen berbera da. Erlijioaren bidez aitortzen den Egia, Zientziak giza baliabideen

45 Ibid. 273. Ikuspuntu hau gaurkotasuneko da eta “kultura likidoaz” hitz egiten duen Zygmunt Bauman moduko pentsalariengandik gertukoa.

46 *Idearium* 2. 1934ko maiatza-ekaina, 99-100 orriak.

bitartez ikertzen duena da; biek sustrai berberak dituzte eta biek osatzen dute giza-jakintza”.⁴⁷

Erlazio estu honek 1930ean inauguratutako Gasteizko Apaiztegiaren aurrealdean aurkitzen du isla, Pedro Asua arkitektoaren lanean. Alde batean, kaperaren aldean, dorre espiritual bat altxatzen da, eta bestean, areto nagusiaren aldean, zientzien dorrea dago, hasierako diseinuaren arabera Behatoki batean amaituta. Nahiz eta diseinu horretan On Jose Miguelek eragina izan zuenaren aztarnarik aurkitu ez, esan daiteke fidelki ordezkatzeko duela.

47 Barandiaran Irizar, 245-246 orriak.

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak eskerrak eman nahi dizkie, 2016 urtean zehar Barandiaranen heriotzaren 25. urteurrenean aurrera eramandako ekintzak antolatzen lagundu duten erakundeei:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Ataungo Udala
Ayuntamiento de Ataun



Eta baita ESTUDIO KENi ere, 25. urteurrenean erabilitako eta beraiek sortutako Barandiaranen irudia uzteagatik.

ISBN 978-84-7821-884-4



9 788478 218844

Kudeaketa eta banaketa:
Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Gestiona y distribuye:
Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

PSP/PVP: 12 €
(BEZ barne / IVA incluido)



▶ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
▶



José Miguel de **Barandiaran**
Fundazioa • Fundación